


Berrigara




Durangoko azokan

Bergara eta Antzuolako argitalpenak, liburu eta diskoen azokan

PROBETXA ITZAZU URTE BUKAERAKO ESKAINTZAK!

400.000

pezetarainoko deskontua izan dezakezu Xsara edo Xantia bat erostean!

ION AUTOAK  **CITROËN**

Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73





Akabo ileak!

Depilazio progresiboko sistema berria.

Abenduaren 18ra arte
%15eko deskontua.

Dei egizu konpromezu barik eta behar beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



ad

LAGUN

GARAJEA



HELBIDE BERRIA Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20

Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa



Erdal Profesional Formakuntza

Andres Osa "Sakona" / Irakaslea

Gasteizko Gobernu nortzuk osatuko duten jakin guran gauden unean idazten ditut lerro hauek. Izan ere, horixe baita azken bolada honetan hitzetik hortzera dabilen gaia. Badirudi PSOE kanpoan geldituko dela. Hala bada, hobe. Gaurkoan ez naiz horretaz mintzatuko. Beno, bi bera besterik ez: indar espainolistak saiatuko dira, barrutik nahiz kanpotik, Lizarra eta su-etenaren bidea oztopatzen. Horretarako erabiliko dituzten bitartekoak ugariak bezain pozoingarriak izango dira. Desinformazioa, manipulazioa eta gezurra komunikabideetan; Legebiltzarrean oztupoak; herri iniziatibak zapuztu; kulturgintza mota guztiak erasotu eta abar. Hori guztia erabiliz, komenientzien arabera beste ekintza bortitzagoak ere egingo dituzte. Eraso gogorak izango dira. Helburu bakarra: hemengo bertakoen batasuna leher-taraztea. Guk, geure bideari tinko eusten badiogu hor konpon, ez izutu.

Gaurkoan, eskuartean daukadana, beste kontu bat da. "Bai Euskarari" kanpaina azken metroak egiten ari da. Oso ondo. Ea, bada, garaipen handia

izaten duen. Geure esku dago. Baina kontua bestea da. Oraintsu, hementxe bertan, zertxobait mintzatu nintzen. Baina berriro hemen nator. "Eustat"-ek, Euskal Estatistika Erakundeak, irakaskuntzari buruz plazaratu dituen zenbaki batzuk ikusi ditudanean amorrubizian jarrai naiz. Jakin banekien horrela zirela gauzak, baina datuak begi aurrean ikusita, egonezina sortu zait.

Lanbide Heziketari buruzko datuak ditut aurrean. LH-1ean, Euskal Autonomi Erkidegoan, guztira 7.325 ikasle dabilta. A eredu, hau da, erderaz, 5.785; B eredu, 89; D eredu, hots euskaraz, 336 eta X eredu, hau da euskaraz arrastorik egiten ez dena, 1.115 ikasle. LH-2an agertzen diren


"Formakuntza Profesionalak duen garrantzia ikusirik, euskarak tokirik ez duela ikusteak zer pentsa eragin beharko lieke Hezkuntza Sailari eta aldundi eta udalei"

beste zenbakiak hauek dira: guztira 18.690 ikasle. Hauetatik A eredu, 18.168 ikasle. B eredu 185; D eredu 337 eta X eredu bat ere ez.

Zenbaki hauen aurrean hitzak labur gelditzen dira. Euskarak aurrerapauso handia eman duela zalantzan jartzea ez da zuzena. Baina, Formakuntza Profesionalak duen garrantzia ikusirik, euskarak ez duela tokirik ikustea zer pentsa eragin beharko lioke, Hezkuntza Sailari eta leku bakoitzeko aldundi eta udalei. Eta eskuarki zer pentsarazi behar liguke guztioi.

"Bai Euskarari" kanpainak horretan jarri behar luke azentoa. Kanpaina horren gidaria den Xabier Mendigurenek behin baino gehiagotan salatu du egoera. Zorionez, badira iniziatiba batzuk egoera honen aurrean zer edo zer egin behar dela eta ekinean dabilzanak. Durangaldean eraikiko den "Ibaizabal ikastola", datorren irailean hasiko dena martxan, noski, Batxilergoa eta Formakuntza Profesionala izango dituen ikastola berria, bost ikastolaren artean sortua (Lekeitio, Ondarroa, Elorrio, Zornotza eta Durango) lekuko. B

■ barruan




Xabier Larrañaga

Kapirixoko presidentea

"Gure helburuak ondo markatu eta gure gaitasunak aztertzea beharrezkoa zaigu"

8. orrialdean.



Iñaki Mujika

Futbolaria

"Lehen gola sartzea kostatzen zaigu, baina lortuz gero, partiduak irabazten ditugu"

21. orrialdean.



Mark Barber

Ingeles irakasle australiarra

"Euskaldunengan harritu nauena bertako kulturari eusteko ahalegina da"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1798. Abenduaren 7an Soleda-
deko Monasterioa sortu zen.
Tuteratik etorritako Mariaren
Lagundiko 8 lekaiame izan ziren
lehen bizilagunak. 1805eko
apirilaren 1ean hasi ziren erai-
kitzen Mariaren Lagundiko
komentu-ikastetxea eta lanak
1824ean amaitu zituzten.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1856. Abenduaren 1ean Baio-
nan izenpetutako hitzarmena-
ren arabera, Espainia eta Fran-
tziaren arteko mugak erabaki
ziren.
1985. Abenduaren 4an Elhuyar
aldizkari berria sortu zen.
1990. Abenduaren 6an Euskal-
dunon Egunkariaren lehen alea.

MUNDUAN GERTATUA

1804. Abenduaren 2an, Napo-
leon Bonaparte enperadore
izendatu zuen Pio VII.a Aita
Santuak Pariseko katedralean.
Urtebete beranduago, egun be-
rean, Napoleonek Austria eta
Errusia hartu zituen mendean
Austerlitzten.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 27
7-18-22-32-35-40 (osag.37/er.6)
Astelehena 30
13-14-18-21-32-35 (osag.44/er.5)
Martitzena 1
6-7-10-20-36-43 (osag.34/er.7)
Eguaztena 2
17-21-26-29-31-34 (osag.16/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 28
4-13-18-22-33-39 (osag.43/er.9)
Domeka 29 Gordoa
7-18-28-38-42-47 (osag.32/er.4)

ONCE

Eguakitza 27: 78.709 (K. seriea: 029)
Astelehena 30: 60.753
Martitzena 1: 92.704
Eguaztena 2: 65.395

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Astebukaera freskoa izango
dugu: izotza egingo du eta
700 metrotik gora elurra. Za-
patuan hodeiz estalita agertu-
ko zaigu zerua eta euria egin
dezake. Domekan euri arris-
kua txikiagoa izango da. Ten-
peraturak behera egingo du.

Ilargiaren aldiak

	Ilbete: abenduak 3
	Ilbehera: abenduak 10
	Ilberri: abenduak 18
	Ilgora: abenduak 26

Eguzkia

Domeka, abenduak 6



Sortu: 08:25



Gorde: 17:50

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 26	13	7	13,8
Eguakitza 27	11	8	22,4
Zapatua 28	12	9	17,4
Domeka 29	7	6	47,2
Astelehena 30	8	3	22,1
Martitzena 1	4	3	0,5
Eguaztena 2	6	3	0,2

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Amelu

Linuzko hari sendoa.

- *Lenao ameluzko
alkondaria ta
eitte ei zuan.*

- *Noizian bein garbittu,
ta oetik jaikitzeruzkuan
prakak pe aurrian zutik
laga ta salto ein dda
sartzeko; gogorak izaten
i zittuztan.*



JOSU OKINA



Mireia Arana
Abenduaren 5ean
2 urte. Urte
askotarako! Gurasak
eta lagunak.



Aritz Arrillaga
Abenduaren 4an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Arrillaga
Abenduaren 13an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Roman
Abenduaren 9an
5 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak, lokin
eta Maitane.



Manu Curado
Abenduaren 13an
21 urte. Urte askota-
rako eta muxu hani-
di bat! Leire eta Unai.



Sergio Carmona
Abenduaren 1ean
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Sara.

Farmaziak

Eguakitza 4:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 5:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 6:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 7:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 8:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 9:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 10:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 6: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 08
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 88

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 68

zorion agurrak



Iñaki Elkorobarrutia
Azaroaren 26an
12 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Maitane Aranzabal
Azaroaren 26an
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta aita Indiatik.



Ion Mendizabal
Azaroaren 24an
16 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta amama.



Nerea Odriozola
Azaroaren 26an
urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak eta Maialen.



Jose Asenjo
Abenduaren 5ean
urtebetetzea. Urte askotarako eta
muxu bat! Etxekoak.



Itziar Murgizu
Abenduaren 4an
39 urte. Urte askotarako!
Lagun bat.



Jero Casquero
Abenduaren 6an
35 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iosune Mendikute
Abenduaren 1ean
urtebetetzea. Urte askotarako!
Garazi eta etxekoak.



Ainhoa Albizu
Abenduaren 2an
27 urte. Urte askotarako!
Txanpaina noiz? Lagunak.



Nerea Etxezarreta
Abenduaren 6an
8 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Andoni.



Paqui Casado
Abenduaren 4an
37 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Garitano
Abenduaren 6an
29 urte. Urte askotarako!
Familia.



Maialen Zangitu
Abenduaren 4an
5 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Ander Etxebarriarteun
Abenduaren 6an
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Enkarna Madaleno
Azaroaren 21ean
urtebetetzea. Urte askotarako!
Petit comite.



Kontxi Osinalde
Abenduaren 4an
35 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Juan Mari Azpiazu
Azaroaren 28an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak eta koadrilakoak.



Izarne Medina
Azaroaren 21ean
urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak.



Josune Iturbe
Abenduaren 3an
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Laura Coma
Abenduaren 4an
20 urte. Urte askotarako!
Mutil-laguna.



Garazi Zabaleta
Azaroaren 30ean
3 urte. Urte askotarako!
Gurasoak.



Justo Egaña
Abenduaren 14an
85 urte. Urte askotarako!
Asier, Eneko eta Unai.



Unai Egaña
Abenduaren 7an
3 urte. Urte askotarako!
Eneko eta Asier eta etxekoak.



Eneko Egaña
Abenduaren 9an
6 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.




Aitor Sanchez
Abenduaren 5ean
2 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Gari
Abenduaren 4an
24 urte. Urte askotarako!
Lagunak.



Nerea Cuadrado
Abenduaren 3an
27 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Jone Azkarate
Abenduaren 9an
19 urte. Urte askotarako!



David Gonzalez
27an urtebetetzea. Urte askotarako!
Gurasoak, lehengusuak eta Sergio.



Iker Murillo
Abenduaren 2an
12 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Oihana Marzan
Abenduaren 7an
19 urte. Urte askotarako eta ondo pasatu!
Etxekoak.



Monika Ezenarro
Azaroaren 25ean
23 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Alberdi
Abenduaren 6an
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Agirrezabal
Abenduaren 9an
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iosu Gomez
Abenduaren 4an
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Prat
Abenduaren 2an
8 urte. Urte askotarako!
Anaia eta gurasoak.



Ander Kintana
Azaroaren 30ean
27 urte. Urte askotarako!
Zeinen partez?



Asier Alberdi
Azaroaren 24an
13 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Arnaiz
Azaroaren 30ean
5 urte. Urte askotarako!
Gurasoak.



Leire Igarza
Abenduaren 2an
4 urte. Urte askotarako!
Aita, ama eta Itsaso.



Tio Luixito
Azaroaren 27an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Familiakoak.



Uxue Murgiondo
Abenduaren 4an
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Paulo Bikuña
Abenduaren 2an
9 urte. Urte askotarako!
Danon partez.



Iker Gardoki
Abenduaren 19an
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.

hildakoak

BERGARA
Mirian Jauregi Aldalur
Azaroak 27, 37 urte
Tiburcia Larrañaga Agirregomezkorta
Azaroak 29, 72 urte
Felix Aseginolaza Araiztegi
Azaroak 29, 78 urte

jaiotakoak

BERGARA
Hirune Astigarraga Oregi
Azaroak 16
Ainhoa Garcia Vila
Azaroak 20
Julen Seco Solana
Azaroak 21
Ekhñie Garcia Garzo
Azaroak 26

ANTZERKIA

► Euskal Antzerki Topaketan barruan, Tantakaren **"Dakota"** antzezlana bihar, zapatua, 21:30etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian. Astelehenean, ordu eta toki berean, Ereintza taldeak **"Urkiola"** antzeztuko du.

MUSIKA

► **Musika Eskolako taldeen kontzertua** gaur, eguakitza, 19:00etan Novedades aretoan.

► **Kontra eta Mutilated show** death metal taldeak gaur, eguakitza, 22:30etan Pol-Polen.

► **Sasoilunak eta Txozas** taldeak gaur, eguakitza, 23:00etan Elorrioko Ateneoan.

► **Gothic sex** taldea bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan. Datorren eguakitzean, hilak 11, **Medina Azahara** 22:00etan.

► **Kultur Errotaren** programazioaren barruan eguenean, hilak 10, **Patxi kaleko folk** taldea 22:00etan Pol-Polen.

ERAKUSKETAK

► Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren

ANTZERKIA

Kromlech

Noiz: zapatuan, 22:30etan
Non: Novedades aretoan
Sarrera: 800 pezeta (500 langabetu txartela edo Gazte Txartelarekin)

Fragoli antzerki talde donostiarrak "Kromlech" bere azken lana aurkeztuko du bihar Bergaran. Eguerdian, berriz, kalejira egingo dute antzezlanoen pertsonaiekin. Duela hamar urte Pier Paolo Pas-



Kromlech antzezlanoaren kartel iragarlea.

solinniren heriotzean oinarrituriko "Ragazzo di vita" antzezlanoaren ingururuan sortu zen Fragoli taldea eta gaur egun Dabid Errasti, Teresa Lopez de Munain eta Josean Bengoetxea dira taldeko partaideak. Antzerkigintzan esparru zabala jorratu dute dagoeneko, haurrei zuzendutako antzerkia, kafe-antzerkia, musikalak edota kale antzerkiko lanak plazaratuz. Besteak beste, "Estazioko begiradak", "Bremengo musikariak", "Sobre el daño que hace el tabaco" edota "The dreams of Marilyn" izenburuko lanak egin dituzte azken hamarkadan. Goian aipatutako aktoreak ETBko hainbat telesailetan egindako lanetatik ere ezagunak dira.

Adolfo Simon zuzendariaren laguntzaz, Fregoliko aktoreek Euskal Herrian bizi dugun tentsio egoerari begirada sakona eman nahi izan diote. Horretarako sinboloz jositako antzezlana egin dute. Fregoli taldekoen ustetan, "etengabe istiluetan murgildurik dagoen gizarte batean bizi garenez gero, hainbat gai buruz gure iritzia emateko beharra sentitzen genuen. Osatu dugun Kromlech edo gure errito-ikuskitz honetan ikusleak ere osotasun baten zati garrantzitsua izatea nahi dugu". Antzerki estilo ezberdinak tartekatzen dira emanaldian zehar eta musika aktoreek beraiek jotzen dute eskenatokian. B

eskutik, **Bergarako kirol munduko pertsonaien argazki erakusketa**, abenduaren 13ra arte Kultur Etxean.

► **Juan Jose Altuna** Akizuren margo erakusketa Durangoko Berbaro elkar-

tean (Santa Ana plaza, 6) abenduaren 15era arte.

IKASTAROAK

► ICTEK **"Adinekoen psikopatologia"** ikastaroa antolatu du abenduaren

10etik 18ra bitartean, zain-tzaileei eta senideei, osasun alorreko langileei edota etxez etxeko laguntzaileei zuzenduta. Argibideak eta izen-ematea: 943 77 16 99.

► Urrietako Sarobe zentruko zine aretoak **kamara**

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

ikastaroa iragarri du abenduaren 14, 15 eta 16rako. Matrikula: 22.000 pezeta. Argibideak: 943 33 20 32.

LEHIAKETAK

► **Amodiozko Gutunen VII. Berrigara**

Lehiaketa. 1984an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanak emateko azkenengo eguna 1999ko urtarrilaren 13a izango da. Argibideak: 943 76 36 61 / 943 76 08 19.

DEIAK

► **Sakanako txistorrari buruzko dastaketa-hitzaldia**

Juan Maria Gomez Sakanako Txistorraren Kofradiako presidentea eta Sebastian Lopez Altsasuko egilearen eskutik eguenean, hilak 10, 19:30etan Gure Ametsa elkartean. Era berean, Arabar Errioxako Otero anaien bodegetako aurtengo ardoaren aurkezpena eta dastaketa egingo da. Ondorengo afarirako izen-ematea 1.500 pezeta.

► **Diputazioak, urtero moduan, bakardade arazoak dituzten 65 urtetik gorako pertsonen**

Gabonak lagun taldean pasatzeko aukera ematen die. Interesatuak abenduaren 16a baino lehen eman beharko dute izena San Joxepe jubilatuen elkartean. Argibideak: 943 76 21 40.

► **Joseba Jaka II. Literatur Bekak**, euskaraz sortutako olerki, eleberrri, saiakera edota gazte-literatur lanei zuzenduta. Proiektuak abenduaren 19ra bitartean bidali ahal izango dira. 943 21 94 27.

OHARRAK

► **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Bertan "Enseñanza"ko ikasleak agertzen diren argazkiak, eskurtsioetakoak, Mariaren Lagundia agertzen den garai bateko Bergarako argazkiak eta oraintsuagoak erakutsi nahi dituzte. Horrelakoak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie. Kopia atera ondoren orijinal guztiak itzuliko dituzte.

► **1947an jaiotako bergararrek kintadako argazkia eta abenduaren 12rako loteria (60.602 zenbakia) Aisor dendan (Bidekurtutzeta, 7) jaso dezakete.**

KINTADAK

► **1975ean jaiotakoen bazkaria** abenduaren 26an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutzako 01.2249862.9 kontu korronte zenbakian abenduaren 18a baino lehen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Negociador

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Los miserables

Astelehena: 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30.

Tango

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Algo pasa con Mary
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:00.

EIBAR. Unzaga

La mascara del zorro

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Ojos de serpiente

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

El show de Truman

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
Martitzena: 20:00.
Los visitantes regresan...
Domeka: 17:00.

Laburmetraien eta

bideo-klipen selekzioa

Eguena, zine-kluba: 20:15.

NEGOCIADOR

Zuzendaria: F. Gary Gray.

Aktoreak: Samuel L. Jackson, Kevin Spacey, David Morse.

Hilketa eta diruzur delitu faltuak leporatu dizkiote *Danny Roman* Chicagoko polizia ofizialari (Samuel L. Jackson) eta bere aurkako konspirazioaren atzetik nor dagoen jakiteko rehen batzuk bahituko ditu. Bitartekari lanen ardurak *Chris Sabian* (Kevin Spacey) poliziak hartuko du...

LOS MISERABLES

Zuzendaria: Bille August.

Aktoreak: Liam Neeson, Geoffrey Rush, Uma Thurman.

Victor Hugoren nobelaren oinarrituta, XIX. mendean hasierako Frantziako girotutako filmea. Bere bizi guztian justiziaren akusaziopean egon ondoren, *Jean Valjean* (Liam Neeson) Vigau hiriko alkate izatera helduko da. Hala ere, zorigaitzak pilatuko zaizkio...

TANGO

Zuzendaria: Carlos Saura.

Aktoreak: Miguel Angel Sola, Cecilia Narova, Julio Bocca.

Datozen Oscarretan Argentina ordezkaturako duen filmea. *Mario Suarez* dantzari ospetsua (Miguel Angel Sola) depresio batean murgilduta dago bere emazteak laga egin diolako. Bere indar guztiak tangoari buruz egingo den filme batera bideratuko ditu...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Mujika
geologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errelenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

SANTA LUZIA BEZPERAN

abenduak 12, zatoz Tartufo jatetxera!

Hasteko, AFARI ZORAGARRIA

Ondoren, DISKO-MUSIKA

02:00etan, GIZONEZKOEN STRIP-TEASE SAIOA

HARTU LEKUA LEHENBAILEHEN!

Tartufo Jatetxea



San Juan auzoa,
Elgetako bidea,
Bergara.

Tf. 943 76 35 51.

Deba Garaiko ondarea babestea helburu duen Kapirixo elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen aurreko astean. Gaur egun, 160 bat lagun biltzen dira Kapirixoren inguruan. Xabier Larrañaga presidenteak elkartearen nondik norakoak azaldu dizkigu.

G. Urtebete daramazu taldearen zuzendaritzan. Zelako esperientzia izan da?

E. Egia esanda, balantzea ez da oso positiboa. Gauzak egin ditugu, baina galdu egin dugu hasierako erritmoa. Hasieran oso hurbileko proiektuak aztertu genituen: Maltzaga-Urbina autopista (jende asko bildu zen horren inguruan alegazioak egiteko) edota Abiadura Handiko Trenaren proiektua, adibidez. Urteak pasatu dira eta hasierako dinamismo hori galdu egin da. Jendea erakartzeko gaitasuna falta izan zaigu beharbada. Askotan gehiegi eskatzen dugu, astebukaretan jendea auzolarena mobilizatzean.

G. Aipatutako gaietan, kontutan hartzen da Kapirixok duen iritzia?

E. Erakunde ofizialetara zuzentzen gara eta zenbaitetan kasu egin digute. Esate baterako, Elgea mendian egingo den zentral eolikoa-ren inguruan aurkeztu genuen alegazioa kontutan hartu da. Haize errotak zenbait eremu megalitikotik oso gertu jartzeko asmoa zegoen eta azkenean errotak zonalde horietatik aldentu egingo dituztela jakin dugu. Ahal den guztietan ondarea errespetatzeko eskatzen dugu.

Batzuetan, badakigu kasu egiten ditugela. Maltzaga-Urbina autopistaren kasuan alegazio objektiboak izan ziren eta ez pentsa de-

XABIER LARRAÑAGA

Kapirixo elkarteak presidentea

“Gure helburuak ondo markatu eta gaitasunak aztertzea beharrezkoa zaigu”



Larrañagaren ustetan bazkideen partehartzea berreskuratu egin behar da.

netan kasu egin digutenik. Hala ere, ahal den guztietan ondarea errespetatzeko eskatzen dugu. Gure interbentzio gune eremutik kanpo ere lan egin izan dugu aurtan, Elgoibarren dagoen errota bat (burdinola izandakoa) kontserbatzeko eskatuz.

G. Aurtan egindako lanetatik zeintzuk azpimarra-

“Hasieran oso hurbileko proiektuak aztertu genituen: autopista, AHTa... Beharbada hasierako dinamismo hori galdu egin da gaur”

tuko zenituzke? 1999rako proiektu berririk?

E. Bergarara mugatuz, garbiketa lanik ez dugu askorik egin aurtan. Elurzuloetan jarri nahi dugun panelaren diseinua (Amaia Arriaranek egindakoa) bukatuta dago. Gorlako bidean dagoen elurzuloa garbitzeko asmoa daukagu. Era berean, tumuloen garbiketarekin jarraituko dugu eta panela-ko mapa berriztu egingo dugu, informazio osatuago eskainiz; tumulo eta trikuharriak non dauden agertzeaz gain, erromeria lekuak, iturriak, bideak edota aisialdi lekuak jasoko dira.

Bestalde, lan gehien Oñatin egingo da. Arrikruztzeko zubia (Araotzeko bidean dagoena) finkatzeko lanekin jarraituko dugu; era berean, Andre-marizuriaren ermita (Araotzetik gorago zegoen lekuan ere lanean ari gara, lurrazpiko aztarnarkeologikoak (XV. mendetik hasi eta honainoko zeramikak) bilatzen. Ez dugu gauza gehiegirik aurkitu. Igande goizetan joan izan gara lanera eta uste baino baino jende gutxiago etorri izan da. Urtean egindako txangoek, berriz, izugarriko arrakasta izan dute eta datorren urterako beste lan bat antolatuko ditugu.

G. Jendearen partehartzea berreskuratzeko zeregin daiteke?

E. Kapirixok bere izateari buruzko hausnarketa beharrezkoa da, helburuak ondo markatu eta gure gaitasunak aztertzea. Leku askotan gertatzen denaren antzera, jendea erretzeko arriskua dago, betikoak mugitzen direlako. Ordezkapenik ez badago edo jendearen partehartzerik ez badago, jendea nekatu egingo ten da. Honen gaineko eztabaida egiteko bilera bat proposatzeko asmoa daukat.

Saenz de Ynestrillas "persona non grata" izendatu zuen Udalbatzak

Jose Luis Elgoro eta presoen aldeko mozioari baietz EAJ, EA eta HBk

Elay-ko langileek Jose Luis Elkorori buruz aurkeztutako mozioa, Senideak taldearen presoek buruzkoa eta HBk Ynestrillas ultraeskuindarrari buruz aurkeztutakoa eztabaidatu zituen astelehenean Udalbatzak, beste gai batzuen artean.



Jose Luis Elgoro askatzea exijitzeko kontzentrazioa izango da zapatu eguerdian Martuteneko espetxearen aurrean.

Ricardo Saenz de Ynestrillas ultraeskuindarra eta Alianza Por La Unidad Nacional (AUN) taldeko bere jarraitzaileak Bergaran izan ziren joan zen azaroaren 15ean. Leihoetan banderak zeramatzaten lau furgonetek, megafonia eta guzti, herriko kaleak zeharkatu zituzten "bir konkista nazionalaren" eta Espainiaren berreskurapenaren" aldeko eskupaperak botaz.

Hori dela eta, HBk bost puntuko mozioa aurkeztu zuen. Lehenengoan, Ynestrillasek eta bere taldekideek egindako "bisita probokaziotzat jotzea" eta horrelakoak berriz ere gerta ez daitezela, ahalegin guztiak egitea eskatu zuten; bigarrenean, Ynestrillas eta AUNko kideak "persona non grata" izendatzea; hirugarrenean, "fashista hauei merezi duten harrera egin zieten herritarrek txalotzea"; laugarrenean, Ertzaintzari "desfile hura alde aurretik adierazita zegoen ala ez galdetzea eta, horrela ez balitz, partehartzaileak identifikatu zituen eta isunak ezartzeko prozesua martxan jartzeko asmoa dagoen galdetzea" eta, era

berean, Ertzaintzaren "jarra ez egokia salatzea, fashista hauei herrira sartzen lagatzeagatik, zuzenean Espainiara bidali beharrean"; azkenik, erabaki honen berri komunikabideei eta AUNra bidaltzea. Mozioa HBko zinegotzien botuekin onartu zen. EAJ, EA eta PSE-EEkoak abstenitu egin ziren.

Distentsio bideak ireki

Bestalde, Elay-ko langileek Jose Luis Elgoro askatzea eskatzeko aurkeztutako hiru puntuko mozioa ere onartu zuen Udalbatzak. Oraingoan, EAJ, HB eta EAren aldeko botuekin; Alvaro Esparza (PSE-EE) abstenitu egin zen. Mozioan zera adierazten zen: alde batetik, Elay-ko arduradun nagusi

eta lankidearen kartzelartzea guztiz bidegabekoa dela, "gure ustez, legez kanpoko inolako aktuziorik egin ez duelako"; bestetik, daukan adinarekin eta bere osasun egoera makala dela kontutan hartuz, "bidegabekeria are larriagoa dela espetxean edukitzea"; azkenik, "hain une erabakiorrean gaudenez, Jose Luis aske lagatzea bezalako keinuek distentsio bideak ireki ditzaketela, Euskal Herri paketsu eta askea egia bihurtzeko bidean".

Aitor Aranzabalek HBren izenean Jose Luis Elgoro Martutenetik Soto del Realera, Madrilerara, Eginen inguruko kasuagatik deklaratzera eraman zutela ekarri zuen gogora eta bidaia desatsegina izan zela esan

zuen. Bestalde, gainontzeko presoekin inkomunikatuta egon zela esan zuen eta zapatu honetan, eguerdiko 12:30etan, Martuteneko espetxe aurrean Elay-ko langileek egingo duten kontzentziora gonbidatu zituen Udalbatza eta herritarrek. Kontzentziorako autobusa goizeko 11etan irtengo da Beheko Estazioetik.

Senideak-ek dispersioaren inguruan aurkeztutako mozioa ere onartu zuen Udalbatzak astelehenean. Hau ere EAJ, HB eta EAren aldeko botuekin eta PSE-EEren abstentzioarekin. Besteak beste, abenduaren 31rako deituko diren mobilizazio ixiletan parte hartzeko konpromisoa hartu zuten goian aipatutako indar politikoek. **B**



Patxi Ormazabal Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuak eta alkateak hitzarmena sinatu zuten joan zen eguenean.

Babes ofizialeko 68 etxebizitza egingo dituzte Urteaga kalean

Lehenengo fasean 44 egingo dira eta bigarrenean 22

Patxi Ormazabal Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak eta Victoriano Gallastegi alkateak Urteagan, Movilla ondoko orubeetan, babes ofizialeko 68 etxebizitza eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten joan zen eguenean Udaletxean. Bergarako Udalak lursail horien jabetza eskuratu ondoren, Jaurlearitzari emango dio, bertan etxebizitzak egiteko. Bestalde, etxeak egin ondoren, lokal komertzialetarako 370 metro karratuko azalerako etxabehea emango dio Eusko Jaurlearitzak Bergarako Udalari.

Etxeak eraikitzeko bi fase aurreikusi dira: lehenengoan, gehienez, 44 etxebizitza eraikiko dira eta bigarrenean, gehienez 22. Lehen fasean, Movilla lantegitik

gertuen dauden lursailetan eraikiko dira etxeak. Bigarrenean, La Parrako etxearen ondoan dagoen etxe zaharra, Urteaga 8, bota ondoren geratzen den lursailen eraikiko dira.

Zazpi eta erdi eta hamabi eta erdi milioi pezeta

80 metro karratuko etxea, trastero, garaje eta guzti, 7,5 eta 12,5 milioi artean kostatuko da. Prezioak finkatzeko orduan bi irizpide hartu dira kontuan, onuradunek irabazten duten soldaten arabera. Honela, babes ofizialeko etxeak eta etxebizitza sozialak bereiztu dira.

Etxebizitza sozialen kategorian sartzen diren etxeak, 7,5 milioi pezetakoak,

diru sarrera txikiagoak dituztenek eskuratu ahal izango dituzte; babes ofizialekoak, 12,5 milioikoak, ostera, sarrera handiagokoek. Nolanahi ere etxeak, kategoria batekoak zein besteak, kalitate berdinekoak izango dira. Bestalde, etxe guztietan izango da igogailua.

Eusko Jaurlearitzak 700 bat milioi inbertituko ditu etxeak eraiki eta urbanizazio lanetan. Inbertsioaren zati bat etxeak saltzeko orduan berreskuratuko da.

Lanak noiz hasiko diren ez da zehaztu, lehenengo Uhola errekaaren ubideratze lanak amaitu beharko dira eta. Urteagan botako diren etxe zaharretako bizilagunak izango dira etxe berriak jasoko dituzten lehenengoak. B

Bedelkarrek 1.000.000 pezeta zozketatuko du

Bergarako dendar, ostelari eta zerbitzuen elkarteak, Bedelkarrek milioi bat pezeta zozketatuko du bere bezeroen artean. Hiru erosketak bono emango ditu: 500.000, 300.000 eta 200.000 pezetakoak. Bedelkarreko denda, taberna edo hoteletan gastatzeko. Zozketa urtarillaren 5ean egingo da eta txartelak aste honetan banatzen hasi dira Bedelkarreko bezeroen artean.

Datorren zapatuan, abenduak 12, piztuko dituzte Gabonetako argiak

Abenduaren 12an piztuko dituzte aurtengo herriko erdialdeko hainbat kaletan ipini dituzten Gabonetako argiak. Azaroan zehar ibili dira bonbilatxoak ipintzeko azpiegitura lanetan eta bihar, zapatua, zortzi piztu eta urtarillaren 7an itzaliko dituzte.

Herriko lau sarreretan eta Barrenkalea, Bedekurutzeta, San Pedro Artekalea eta Arruriagokaleetan jarri dituzte Gabonetako apaingarriak.

Horretaz gain, Fraiseko zuri plazan, Pilotalekuaren aurrealdean, Gabonetako zuhaitza ipiniko dute. Aurtengo Gabonetan kaleak dotoretzartea ia 3 milioi pezetakostatuko zaio Bergarako Udalari.

Eibar-Gasteiz autopista egin ahal izateko 32 hektarea lur desjabetu dute Bergaran

Joan zen aguazten eta eguenean, Eibar-Gasteiz autopistaren lehen zati-ko lur desjabetzeak egin ziren: eguaztenean, Bergarako udalerriri dagozkionak eta eguenean Soraluzeakoak.

Autopistaren behin betiko trazaketa joan zen ekainean onartu zen eta autopista hiru zatitan banatu zuten. Maltzagatik Bergararainoko zatia beste bi zatitan banatu zuten; alde batetik, Maltzagatik Soraluzeera doana eta, bestetik, Soraluze eta Bergara artekoa.

Lurren desjabetzeak, oraingoan, Bergara eta Soraluze udalerrien arteko zatiari dagozkie. Bergarako udalerriari 68 lur zati desjabetu dituzte, guztira, 32 hektareako azalera. Soraluze, ostera, 7 lur zati, orotara, hektarea bateko azalera.

Eibar-Gasteiz autopistaren obrak Bergaran hasiko dituzte. Azkenengo berrien

arabera datorren urteko apirilean hasiko dira. Bergara eta Soraluze arteko zatiak 6 kilometroko luzera dauka. Autopista osoaren aurrekontua 120.000 milioi pezetakoa izanik, Bergara eta Soraluze lotuko dituen 6 kilometroak egiteko 18.000 milioi aurreikusi dira.

Zati honetan hiru zubibide edo biadukto egingo dira: Sagar Erreka (140 metroko luzera), Ubera (243 metroko luzera eta 42 metroko altuera) eta Ondartza (125 metroko luzera eta bi adar). Bestalde, bi tunel izango dira: Gallastegi (2.340 metroko luzerakoa) eta Lezarri (1.220 metrokoa). Horretaz gain, Ondartzan bidesaria ordaintzeko peaje eremu zabala izango da. Hori dela eta, Ondartza baserria

Marrazkian, Bergaran autopista nondik joango den ikus daiteke.



errepidez inguratuta geratuko da. San Antonabat ermita, baina, ez dute botako, hasierako trazatua egin zenean uste zen bezala.

Joan zen astean egin ziren lur desjabetzeak direla eta, Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko taldea prozesu horren kontra azaldu da eta gogoratu nahi izan du Interbentzio Gune Partehartzailetan autopistaren aukerak babes oso txikia jaso zuela, hain zuzen ere %15ekoa eta gaur egungo errepideak sakonean hobetzearen alde azaldu zela gehiengoa. Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko taldearen esanetan "autopistak ez die bailarako benetako beharrei erantzuten, ardatz bantzaile da eta ingurugiro eta nekazaritza ikuspegitik onartezina da". Bestalde, Eibar-Gasteiz autopista egitea, A-8 autopistaren peajearen luzapena ekarriko duela diote. B

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

RPS: 292/98



HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1



Berrigara

346 zenbakia.
1998ko abenduaren 4a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetzatzailea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroberebizar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Jose Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurfilarietako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Gutunak identifikatu egin behar dira

SOLUZIOBIDE BAKETSU ETA POLITIKOAREN ALDE

Dokumentu hau sinatzen dugunok (jatorri eta ezaugarri anitzeko EEGak eta elkartasunerako kolektiboak) beti pentsatu izan dugu bidezko bake iraunkorra lortzeko giza eskubideen defentsa eta inposizio gabeko soluziobideen negoziaketa bermerik onena direla.

El Salvadorren, Guatemalan..., hedatu izan diren gatazkak eta gaur egun Colombian, Argelian, Saharan, Chiapasen, Palestinan, Los Lagosen..., bizirik dirautenen aurrean, baldintzarik gabe, giza eskubideen defentsa eta soluziobide politikoaren alde -baketsu eta ez militarra- lan egiten dugu.

Hirugarren Munduaren alde dihardugu eta betidanik, honi buruzko iritzia, kontzeptu geografikoa baino soziala dela deritzogu, gure gizartean ere bizirik dagoelarik, pobreak, inmigratioak... adierazle dira. Horregatik, soldata unibertsalaren aldeko kanpainak

egin ditugu, justifikatu ezinezko militar gastuen aurka eta atzerriartasun-lege bidegabean kontra.

Arrazoi hauengatik, Euskal Herrian urtetan bizi den gatazkak arduratzen gaitu, horren inguruan giza eskubideen hausteak ikusi baiditugu (heriotza, torturak eta tratatu txarrak, bahiketak...) eta gizabanakoaren libertateen eta askatasun nazionalaren murrizketak ere bai.

Horrekin lotuta eta beste egoera batzuetan ikusi izan dugun bezala, gure herriko gatazkaren jatorria, zalan-tzarik gabe, politikoa dela sinplifikatu besteren jarre-kriminalizatuz eta norberarenak erregabetuz. Zehazki eta gure historiaren egin berria den etapari helduta, duela 20 urte euskal gatazkan planteatzen ziren arazoei aurre ez egitean dago gakoa: lurraldetasuna, subiranotasun eta determinazio politikoak.

Honengatik guztiarengatik, azkenaldiko gertaerei

harrera bero bat ematea ezinbestekoa zaigu (Lizarrako Akordioa, ETaren mugagabeko su-etena...), baita gure gizartean eta indar politiko eta sizial guztietan, ekarrizketaren aldeko eta gatazkaren soluziobide negoziatu eta baketsu baten aldeko jarreraren hedapenari ere.

Zentzu honetan, behean sinatzen dugun EEGak eta Elkartasunerako Kolektiboak, emandako baldintzarik gabeko su-etenen mantentzea defendatzen dugu eta baita beste distentsio neurri batzuk hartzea (presoa Euskal Herrian berri elkarteak, legislazio berezian indargabetzea, gaisorik dauden presoa eta zigorren bi heren bete dituztena kartzelatik ateratzea...) eta gure herriak bizi duen gatazka egoera bideratu ahal izateko negoziatioa oinarritzat hartuz, komeni diren bitartekariak martxan hartzea ere.

Oscar Romero, Komite Internazionalistak, FISK

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zer egingo zenuke zure bizilagunak bere etxekoren bat jipoitzen duela jakingo bazenu?




Almudena Franco

Ez dut uste ezer egingo nukeenik. Kasu oso larria izango balitz, beharbada, salaketa jarriko nuke, baina bestela, ez nintzen ezer egingo tera ausartuko.



Ramon Solana

Nire bizilaguna balitz, bere etxean zaratarik eta emakumea ondo tratatzeko eskatuko nioke. Kasu egingo ez balu, salaketa jarriko nukeela ohartaraziko nioke.




M. Angel Murgiondo

Epailearen aurrean salatuko nuke. Bizilagun ezaguna izanez gero, erabaki zaila dela uste dut, baina hitz eginda konponduko ez balitz, salaketa jarriko nuke.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jose Angel Amasorrainek deitu digu aste honetan gas instalazioa ikuskatzen aritzen den Revi-Gas enpresaren jorkaera salatzeko. Honen inguruan kexak azaltzeko beste herritar batzuk ere etorri zaizkigu. Aipatutako enpresa etxez etxe ei dabil gas instalazioak ikuskatzeko enpresa baimendua dela esanez. Baina lan hori egiteko lizentzia duen herriko edozein gas instalatzailek ere egin dezake ikuskaketa, Revi-Gas ez baita bakarra. Etxeetako gas instalazioa begiratu ondoren, ia 7.000 PTA kobratzen ei du Revi-Gas enpresak. Ezertan hasi aurretik, onena gasa jarri duen enpresarekin harremanetan jartzea da.



Cesar Cebrian

Lehendabizi kaltetuarekin hitz egingo nuke eta bera ausartuko ez balitz berehala salaketa jarriko nuke. Horrelakoetan jendea ez da ausartzen eta.



Sagrario Zabaleta

Ez nuke salaketa ipintzeko inongo arazorik izango. Berehala egingo nuke. Kontu horiek ez didate beldurrik ematen. Dena dela, hitz egingo nintzateke.



Raquel Gonzalez

Nabarmenegia izango ez balitz, en nintzateke arazo horietan sartuko. Larria dela ikusiko banu, beraiekin hitz egin edo beharbada egoera salatuko nuke.

■ ikuspuntua: **roberto izagirre**

Gogoetak



pentsakor. Haren ildotik gogoeta batzuk:

Gehienok garbitu dugu arima, 5.000rekin, 10.000rekin, 25.000rekin... Erakunde eta nazioak, pentsa! Batzuk "deuda e(x)terna" deritzan behin betirako kondanaren interesak pare bat urtez atzeratu dizkiete. Zein bihotz onekoak garen!

santujalea izan, baina era horretako apaizek betidanik piztu didate mirespena. Han Mitch haizerauntsiari buruzko kronikatxo batekin laga gintuen

Hemendik aurrera, baina, Gabonak. Dagoeneko kaleak argiz gainezka; jakina, non ikusi da koloretako bonbilarik gabeko Eguberria? Angula eta bixigua ere oso garesti, ez dago eskubiderik!. Umeari Olentzerok jostailu modernoak; baina gero Erregenetan ere eskatu egiten du koitaduak eta...

Bitartean, Ertamerikan betikoa, ezbeherra; oraingoan zela?. Armen bidez ejerzito amerikarrak eraginda, banketxe europarren itomen ekonomikoak edo Nikaraguan bezala "demokratikamente"; baina, hori normala da, ez? total aurki izango da haizerauntsiren bat pobreekiko elkartasuna erakusteko.

Eguna gaiztotzen ari zait gaur ... B

■ asteko menua: **sirimiri jatetxea**

Arrain budina



SOFIA NAVARIDAS
eta IGNACIO LARRAÑAGA
Sirimiri jatetxeokoa

PRESTAKETA

- Molde bat (8-10 zentimetroko altuerakoa) gurinarekin ondo igurtzi eta ogi birrindua bertara bota gurinarekin nahastu dadin.
- Bol batean, arrautza osoak (gorringo eta zuringoa), arraina, esnegaina, egindako tomatea eta gatz eta piperbeltz apur bat bota eta dena irabiagailuarekin trituratu.
- Nahasketa guztia moldera bota eta aluminio-paperarekin estali, labean maria bainuan jarri aurretik.
- Ondo gogortuta dagoela ikusten dugunean, labetik atera eta hozten laga.
- Mahaira ateratzeko, moldetik atera, xerrak egin eta maionesarekin edo saltsa arrosarekin aurkeztu.

■ adituen esanetan

Janari eta edari gehiegikeriak

ROSA SANZ, *biologoa*

Gabonen atarian gaudenez, janari eta edari gehiegikeriak prebenitzeko gomendio batzuk ematea ez da gaizki etorriko. Fetxa hauetan ohizkoa baino konpromezu gehiago izaten ditugu eta askotan gehiekeriatan erortzeko arriskua dago. Lojiko denez, kaloria gutxi-ko dietak martxan jartzeko garairik txarraren izaten da laister datorkiguna. Beraz, jan-edaneko neurritasuna ezinbestekoa da. Kantitatearekin kontuz jokatu beharko dugu eta, horretaz gain, poliki jan (elikagaiak ondo dastatuz), gosaria egitea (bazkarira izugarritzko gosearekin ez heltzeko) eta errazioak neurri-ko izatea gomendatuko nuke, Gabo-

netan ohi baino errazio handiagoak jaten ditugu eta. Era berean, saltsa eta goarnizioak ahal den nurrin saihesteare ez legoke gaizki. Jai egunetako dieta bereziak beste egunetako dieta arinagoekin tartekatuko ditugu.

Gehiegikeriatan jausiz gero, betekada eta ajea dira jakineko ondorioak. Ajeari aurre egiteko ura edo esnea edatea, B bitaminak edo tomate-zukua gomendatzen dira. Enpatxuen kasuan, berriz, bikarbonatoa hartzeaz gain, ura eta infusioak (kamamila edota menta poleoarena) primeran datoz. Dena den, esan bezala, neurritz jan eta edatea zuzenena. B

■ bergarako gordailutik

GURE GURASO ZAHARRAK.

II: UZARRAGAKO ABIZENAK

Imanol Sorondo

Denok dakigu uzarragatarak Bergarako barrutian sartu zirela 1391. urtean eta gero atera 1629.ean. Orain ez goaz bai baterako eta bai besterako eduki zituzten arrazoiak ipintzera. Gaurko idazki honetan nahi duguna 1391. urteko uzarragatarren abizenak eta askoren izen berdineko baserriak azpimarratzea da.

Batzarrean zeuden Azcaratetar Juan Martinez, Bergarako alkatea, Ozaetatar Martin Martinez eta Lizarraldetar Martin Gartzia, zinezko gauzatzaileak, eta Otxoako Galarzatar Pedro eta Aguirretar Lope Martinez idazkariak.

Bergarako barrutira pasa ziren uzarragatarren zerrenda hau da:

Galarza, Bereterio, Beisagasti, Urn-sarri, Gorritz, Ayscoegui, Egusquiza, Orueta, Urrutya, Sarralde, Bereterio, Echenagusia, Lausagarreta, Galarza, Al-bisua, Iturria, Vidaurre, Zabala, Areysti, Veneitua, Yeribar, Huasarrati (?), Muñagaray, Areysmendi, Goyenaga, Lasturen, Zumeheeta, Areysmendi, Lasturen, Aranguty, Iratea, Irazaval, Goytia, Velas-tegui, Aguirre, Ascue, Ugarte, Emparain-di, Aranburu, Ugarte, Irala, Arriaga, Ay-zaga, Ibarlucea, Irala, Lapaza, Zavala, Eguino, Otamendi, Irimo, Irastorza, Egustiza, Olazabal, Galardi, Amileta, Inurriagarro, Orbe, Olazabal, Areizaga, Arteaga, Arrola, Arrelux, Necolalde, Osynlua, Necolalde, Veresiartu, Veresiartu, Onadarra, Veresiartu, Palacio de Burunano, Zavala, Zeareta, Ayscoegui, Ugarte, Gallaystegui, Amuchastegui, Gibelondo(?)-Lemoyda, Iribe, Achotegui, Areispe, Aldaeta, Castiello, Arana, Castiello, Garitano, Maiguena (?), Masusto (?).

Gero idazkiak Bergarako lekukoak ipintzen ditu; horien artean diren abizen desberdinetan: Moya, Aldecoa, Marquina, Atri, Segura, Pagoaga eta Loyola.

Zalantza sor dezakeen gai bat dago: azken aldeko abizenak ez ote diren oxirondotarren batzuenak. Nik hala uste dut. Ziurrenik Uzarragakoekin batera lehen Bergarako barrutira pasatu ez ziren oxirondotar batzuk orain egin ziren. Abizenek eta baserri ezagunen izenek, bata bestearen ondotik Oxirondo lurraldekoak, hala adierazten dute. B



1938an jaiotakoak

joan zen zapatuan 1938an jaiotako bergararrek euren anaiarteko eguna ospatu zuten. Honelakoetan gertatzen den moduan, lagunekin elkartu eta giro onean egun ederra igaro zuten. Bazkalaurretik dotore-dotore Usondon kamara aurrean jarri eta klik!, albúmean gordetzeko argazkia atera zuten. Jarraian, 50 lagun inguru bildu ziren egindako bazkarian. Primeran bazkaldu eta gerō, ondorengo solasaldian elkarren berri izateko tarte izango zuten... Hurrengora arte!!

KINU

Nikaraguarako laguntza

Mitch hurakanak Ertamerikan eragindako kalteak direla eta, **Mariaren Lagundiako eskolaurreko neska-mutilek** laguntza kanpaina egin dute. Ikasleek etxetik ekarritako janari eta bestelakoekin Gabonetako bi saski osatu ziren eta haurren gurasoen artean egindako zozketan **80.000 pezeta** inguru batu ziren. Saskietako bat **Visi De la Cruz**-i tokatu zitzaion eta besteak ez du jaberik oraingo, **221**

zenbakiko boletoaren jabeak eskuratuko du. Batutako dirua Nikaraguara bidaliko da Mariaren Lagundiko FISC erakundearen bitartez.



San Frantzisko Xabier eguna

Aranzadi Ikastolako 6. mailara arteko ikasleek San Frantzisko Xabier eguna ospatu zuten atzo, eguna. Egun guztian zehar jokoak eta bestelako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Goizean, besteak beste, saskibalo jokoak, bizikleta probak, dantza lehiaketak edo aerobic saioarekin primeran pasatu zuten. Seminarioko patioan egiten zuten hotzari aurre egiteko aerobic klasea primeran etorriko zitzaion oraingoan. Argazkian ikus daitekeenez, aerobicak jarraitzaile asko ditu. **San Frantzisko Xabier Olinpiadako sari banaketa** Gabonetako jaialdian egingo da.

IRAURGI

Camino doktorea 1
Donostia
Tf. 943 42 85 85

Iraurgiren oharra:

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Bergara eta Deba Garaiko guztioi urteetan zehar azaldutako konfidantzagatik eta gogorarazi lanean jarraitzen dugula Donostiako dendan. Bertan gaukazue zuen esanetara gure esku dagoen guztirako.

Eskerrik asko Bergara!


Iñigo Elorza

Bergara ezagutzen lehiaketa 99 ?



- 14-18 urte bitartekoendako
- Urtarriletik aurrera ostiral arratsaldeetan
? Kartzela Zaharrea,
? Bergarari buruzko galderak zuzen erantzunez gero,
EGUNDOKO SARIA izango duzue
- 10-15 laguneko taldeak osatu eta
? abenduaren 6a baino lehen eman izena Jardunen:
Kartzela Zaharra. Tf. 943 76 36 61 / 76 08 19

Antolatzailea:



kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 27 zenbakia. 1998ko abenduaren 4a.

Bai euskarari Antzuolan

XXI. mendeko akordioaren inguruan herrian taldea eratu da

Euskal Erakundeen Kontseiluak bultzatzen duen "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!" kanpaina heldu da Antzuolara. Dagoeneko hainbat herritar ari dira biltzen abenduaren 26an Euskal Herriko bost estadiotan ospatuko den jaialdien inguruan jendea girotzeko. Horretarako Antzuolan ere jai egun bat antolatzen ari dira.

Joan zen eguaztenean egin zuten lehenengo bilera eta jende gutxi bildu zen arren, jadanik abenduaren 19a, zapatua, hautatu dute "Bai euskarari" lemapean kalera atera eta hainbat ekitaldi egiteko. Helburua garbia da: Euskal Herri mailan egiten ari den "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" kanpainaren izenean, abenduaren 26an Euskal Herriko bost estadiotan egin nahi diren jaialdi erraldoi horietarako giroa. Miarritze, Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteizko estadioetan egingo da ekitaldi nazionala. Bost lekuak komunikatuta egongo dira jendeak aldi berean beste estadioetan pasatzen dena ikusteko.

Bai euskarari Antzuolan

Herriko hainbat taldetako ordezkariak bildu ziren joan den asteko eguaztenean egin zen bileran. Gipuzkoako Kontseiluko kidea, Larrait Mendizabal donostiarra, etorri zen Euskal Erakundeen Kontseilua zer den azaltzera eta Bai euskarari kanpainaren berri ematera.

Kanpainaren abiapuntua, "euskarren normalizazio prozesua azkartzea da. Horretarako akordio sozio-politiko-ekono-

miko zabal bat lortu nahi da Euskal Herriko hainbat erakunde eta agente garrantzitsurekin". Asko dira ekimen honi baietza eman diotenak. Datorren abenduaren 26an ospatuko da kanpainaren ekitaldi nagusia: "jaialdi erraldoi bat izango da eta Euskal Herriko bost estadio nagusietan". Herrian ere jai egun bat antolatzen ari dira bilera horretara bildu zirenak. Oraingoz abenduaren 19a hautatu dute horretarako eta gauzak okertzen ez badira, behintzat, zapatu hori

izango da antzuolar guztiok "Bai euskarari" lemapean ospatuko dugun eguna. Abenduaren 10ean hurrengo bilera izango da 19:30etan Herriko Eskolan.

Gasteizko Mendizorrotzara

Oraindik garbi ez dagoen arren, Deba Garaiko eskualdeko herritarrak Gasteizera joatearen aldekoak dira Gipuzkoako Kontseilukoak. Herritik autobusa ipiniko da jaialdira joateko.



Gizarte osora zabaldu nahi da euskararen aldeko kanpaina hau.

Abenduaren 19an jaialdia egingo da herrian
"Bai euskarari" kanpainaren barruan

Arrola elkarteak eta mendizaleak

Federatzea beharrezkoa dela diote Arrolako juntako kideak

Uztailaren 25. urteurrena bete ondoren, Antzuolan jende gehitxuen mugitzen duen taldeak, ARROLAK, iraganetik ikasiaz, baina beti ere etorkizunean begiak jarrita, bere horretan jarraitzen du lanean. Euren esanetan "haize errotak (parke eolikukoak), errepediak, autopista edota trenbide erraldoiak disfrutatzen mendi apur bat lagatzen doskuen bitartean, behintzat, hor ibilliko gara, gazteiei eta gazte izandakuei mendi eta naturarekiko maittasuna txertatu nahian".

A

maitzear dagoen urte honetan Arrolako juntakide batzuekin elkartu gara solasaldian, euren ibilaldi berri eta premien berri jasotzeko. Mendizale elkarteak arlo bat baino gehiago lantzen ditu. Eskola artekoa da horien artean garrantzitsuenetakoa.

"Bai, gaurko umiak izango diralako biharko mendizaliak, eta etxe bat oiñari onekin jaso ezker, tinko eutsiko jao. Horixe da lortu biharrekua, gure nagusiak lagatako kataia ez apurtzia". Horretarako mugak ikusten dituzte gaur egun: "lehen 14 urtera arte ikisten zebe herri-xan eta eskolia erabiltzen giñuan umiak animatzeko. Oin Bergarara jua biharrekin, txikixenak besterik etxaku eskura geratzen. Horrek hutsune bat sortzen dosku". Honi aurre egiteko ahaleginak egin badituzte ere, oraingoz ez dute konponbiderik ikusten, eta alde horretatik edozeinen ekarpenak onartzeko prest daude. "Txikixaguekin moduz moldatzen gara, azkenengo irteeria ikusi besterik eztago; eguraldi txakurra egin arren 25 bat ume etorri ziran Karakatetik Elusu-



Ekainean izan ziren Aiako Haitzean eskolarteko martxan.

raino, asko, gaiñera, estirañeko aldiz, bidetako trikuharri eta tumuluak ikusiaz, eta Anaje Narbaizak (mila esker berari) emondako azalpenak entzunaz". Abenduaren 13an aurtengo azken irteera egiteko asmotan dira umeekin, Angiozartik Elgetara, eta Intxorta aldean antzinako frenteko kontuak entzuteko aukera ere izango ei dute. Dena dela, aurtengo egitaraua oraindik amaitu barik eduki arren, dagoeneko, urte berrirako egutegia ia osatuta daukate. Gainera ideia berriak jasotzeko prest daudela adierazi nahi izan digute.

Neska gutxi

Beste gai askoren artean, irteeretan somatzen den neska falta aipatzen dute "hain zatarrak ete gara, ba...?".

Umetan neskatila gehiegi ibiltzen ez bada ere, urteak aurrera joan ahala urritzen joaten da kopurua. Euren esanetan, "garai baten oso azkar ibiltzeko familia zeukan Arrolak, baiña oin asko apalduta gare; Antzuola-Donostia egiteko, esate baterako, lehen baiño pare bat ordu gehixago bihar izaten dittugu eta proportzio honetan beste danak. Gaiñera, aha legintzen gara irteera danetan bidia ezagutzen daben bateren bat azkena jua dedin". Hala eta guztiz ere, emakumezko gutxi joaten da mendi irteeretara. "Zer dala eta ...? matxismuaren eragiala ete...?" Hor guztiontzako erronka.

Geroz eta altuago


Aurtengo partean, historian zehar mendi-talde bezala iritsi diren mendirik

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasak
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

ederatuak

altuenera ere eraman dute Antzuolako herriaren izena: Anetora, Pirinioetako gailurrik garaienera (3.404 m). "Kriston suertia euki giñuan, hiru egunetatik guk puntara juateko aukeratu giñuan eguna besterik etzozkun ona egin; eta zelakua gaiñera!". Begi bistan dago oso gustura daudela irteera harekin. Hamasei lagun joan ziren, tartean bi neska besterik ez; "eta bat, gaiñera, kanpokua". Eta eguraldi ona lagun, denak gailurreraino "batzuk kurutzara eta bestiak Mahoma pasabide famaturaino ailegau giñan. Metro bete edur berri bazan, baiña... Tartian, goimendixan asko ibilli bareko bi gazte be baziran; eta hotz pixkat pasau arren, oso gustura geratu zirala entzun dogu".

Federatu beharra

Juntakideek azpimarratzen dutena da horrelakoak egiteko ezinbestekoa dela mendizaleei federatu daitezela eska-

tzea. "Talde gehixenetan federatuta ez-pazare ezin zara juan, ez Pirinioetako eta ezta beste batzutara be; zeozer pasau ezkeror orduan etortzen dira kontuak Ondo begiratuta, federatzia ezta hain garestixa. Batetik segurua daukuzu, baiña baita errefujixotarako erreserbia eta deskontua be, Pyrenaika etxian... Eta dana hillian milla pezeta baiño gutxiagoan". Diotenez, "aberiak ez tira bakarrik edurreran edo eskalatzen egitten, gehixenak -estatistiken arabera- hemen zihar, bueltako mendixetan gertatzen dira; eta danok dakigu zelako kokotekuak emoten doskuen, bai medikuak eta baita errehabilitaziñuetan be norbere kontura egin ezkeror". Hori guztia kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen dute federatzea. "Aurten nobedade mordo bat daren; Europarako segurua, esate baterako, desagertu egingo da, eta aukera berrixak agertu dira oso prezio onian". Badakizue, mendian seguru ibili nahi izanez gero, kasu egin!

Berrikuntzeekin jarraituz, aurten, bedidanik egin izan diren ekintza batzuek aldaketaren bat izan dute. "Gure ustez mendixan dabillen jendiaren arabera gure ekintzak be moldatu biharra dago. Akanpadiari, adibidez, mendiko kutsu gehixago emon nahi izan jau, zakar antzian esanda: jan-eran gutxiago eta ibilli gehixago. Eta Finalista Egunarekin antzera, antziñako mendiko erromerixetan bezela, bakoitzak bere jana eruan, eta guk saldia eta txorixua emon".

Umeek mendiko bizikletekin egindako irteera ere nobedadea izan zen. "Urbasa alde-ara egindako irteeria ezkeror, umiak isildu bari-rik dabitz galdezka noiz egingo ete dogun beste holako bat. Horrekin batera, plaiakuak eta Anoetakuak kriston arrakastia eukitzen dabe". Arrolak urtero perretxiko erakusketa ere

antolatzen du. Aurrerantzean ordea, bi urtetik behin antolatuko dute "bestela oso errepikakorra izaten da".

Euskal Herritik kanpora ere askotan joan dira. "Gaztien artian horretxek dauke arrakastarik haundixena, hori eskatzen doskue". Maristetan ere rokodromoa estreinatu dute aurten. "Udaletxiarekin batera ipiñi giñuan eta gazte batzuk gogor dabitz hantxe; oin ikusi egin bihar nun eta zela geratzen jakun hau trasladiarekin".

Kontuak kontu, azpimarratu digute astelehen bat bai, hurrengo ez, 7etan elkartzen direla betiko lokalean eta atak zabalik dituztela edozeinen ekarpenak edo kritikak entzuteko. "la kapaz garen danon artian beste hainbeste urte-tan talde hau martxan eukitzeko. Eta gogoratu, mendixan gozatzeko ez tala lñurrategitar bat izan bihar; nahiz eta apal- apal, igual, hortara be allegau".

■ ■ ■
*"Garai baten oso
 azkar ibiltzeko
 famia zeukan
 Arrolak, baiña
 oin asko
 apalduta gare"*
 ■ ■ ■



1995ean Lizaratik Kandantxura egindako mendi irteera.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotua •
- Mokatetarako eta tapizatuak •



Iazko Santo Tomas feriaren une bat.

Santo Tomas eguna

Abenduaren 21ean, astelehena, izango da Santo Tomas eguna. Antzuola-ko neska-mutikoek ere astelehenean ospatuko dute jai eguna. Txerria nagusi izaten den egun honetan ordea, ez da txerri-egongo eskolako umeek herriko plazan jarriko duten ferian. Urtero txerri txiki bat zozketatu duten arren, aurten urdaiazpikoa zozketatuko dute.

Zozketa 17:00ak aldera izango da,

herriko plazan, eta zozketaren ondoren azoka bera ere jasotzen hasiko direnez, txartelak erosten dituztenak, plazara lehenbailehen gerturatzeko eskatu dute.

Eskolako neska-mutikoek herriko baserrietako animaliak eta nekazal produktuak jarriko dituzte ikusgai. Txistorra eta txokolate beroak banatuko dituzte bertaraten diren guztien artean, hotzari aurre egiteko.

Jubilatuendako Gabonak

65 urtetik gorakoek Gabon eta Nabititate eguna Donostiako Orly hotelean igarotzeko bi aukera izango dituzte.

Bata, Gabon gaueko afaria eta gaua pasatzea, eta bestea, gabon gaueko afaria, gaua eta Nabititate eguneko bazkaria. Ordaindu beharrekoa, berriz, norberaren edo bikotearen dirusarreraren arabera izango da. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, Bergarako Jubilatutxo Etxera jo daitezke abenduaren 16a baino lehen. Telefonoa: 943 762140.

Diapositibak eta hitzaldiak

Koke Lasas eta Ramon Garate gonbidatu dituzte Arrola Mendizale Elkartekoek herrira. Abenduaren 10ean, eguna, Koke

Lasas Manaslu mendiaren inguruko kontuak azalduko ditu, diapositibekin batera. Abenduaren 15ean, martitzena,

Ramon Garatek, Euskal Mendi Federakundeko sendagileak, osasuna mendiari izango du hizpide. Bi saioak zinean izango dira, arratsaldeko 19:30etan.

Bestalde, abenduaren 13an, Intxortara irteera egingo dute haurrentzat. 08:30etan irtenda. Izen ematea abenduaren 9an, 19:00etatik 20:00etara.

Dokumentu zaharrak ikusgai

Udaletxeko Kultura batzordeak herriko dokumentu zaharren erakusketa antolatu du datorren abenduaren 12rako. Herri

bertan dauden dokumentu zaharrez gain, Donostiako Gotzaitegiako artxiboan urteetan bildu diren hainbat dokumentu historiko ikusteko parada ere egongo da egun horretan. Asmoa herrian dagoen aberastasuna erakustea da, dirudienez, Antzuolan beste

lekuetan baino dokumentu historiko askoz gehiago bildu dira ere. Gainera herrietako asko "altxorrak" omen dira. Aukera polita, beraz, herriko historia ezagutzeko.

Pilota partiduak



Abenduaren 19an jokatuko da herriko eskuz binakako pilota txapelketaren finala. Oraindik zeintzun artean jokatuko den ez dakigun arren, final erdiak ez dira jokatuko eta, partidu ikusgarria izango da dudarik gabe. Abenduaren 12an, zapatuan, final erdiak jokatuko dira eta hurrengo zapatuan, hilak 19, izango da txapelketaren finala.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

LEKU-BERRI
MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

TOPAGUNEAN DAUDEN ALDIZKARIAK

1. Andoain	AIURRI	Hamabostekaria
2. Aretxabaleta	ARETXAGAZETA	Hamabostekaria
3. Arrasate	ARRASATE PRESS	Astekaria
4. Zumaia	BALEIKE	Hilabetekaria
5. Elgoibar	BARREN	Astekaria
6. Bergara	BERRIGARA	Astekaria
7. Bilbo	BERTON	Hilabetekaria
8. Getxo	BIZARRA LEPOAN	Hilabetekaria
9. Basauri	BOST AXOLA	Hilabetekaria
10. Ermua	DROGETENITTURRI	Hilabetekaria
11. Legazpi	ENE BADA!	Astekaria
12. Durango	ERAZ	Astekaria
13. Eibar	...ETA KITTO!	Astekaria
14. Tolosa	GALTZAUNDI	Hilabetekaria
15. Gasteiz	GEU GASTEIZ	Hilabetekaria
16. Elgeta	GOIBEKOKALE	Hilabetekaria
17. Ordizia	GOIERRITARRA	Hamabostekaria
18. Urdiaín	GUAIXE	Hilabetekaria
19. Deustua	HITZA HARTU	Bihilabetekaria
20. Irun	IRUNERO	Hilabetekaria
21. Donostia	IRUTXULO	Astekaria
22. Orío	KARKARA	Hilabetekaria
23. Orereta	LAU HAIZETARA	Hilabetekaria
24. Azkoitia	MAXIXATZEN	Hilabetekaria
25. Usurbil	NOAUJA!	Hamabostekaria
26. Mungia	NONTZENBARRI	Hilabetekaria
27. Urduliz	SANTAMARIÑE	Bihilabetekaria
28. Bera	TTIPI-TTAPA	Hamabostekaria
29. Lasarte-Oria	TXINTXARRI	Hamabostekaria

TOPAGUNEAN EZ DAUDEN ALDIZKARIAK

30. Bermeo	AKATZ	
31. Ondarroa	ARRANONDO	
32. Ondarroa	BOLO-BOLO	Hiruhilabetekaria
33. Baiona	BAM	Bihilabetekaria
34. Gernika-Lumo	DEIADAR	Hilabetekaria
35. Bilbo	ZENBAT GARA	Hilabetekaria
36. Gares	MURUGARREN	
37. Ataun	NONDIK	
38. Lezo	ORRATX	Bihilabetekaria
39. Urretxu	OTAMOTZ	Hilabetekaria
40. Soraluze	PIL PILEAN	
41. Labarka	TTIKI-TTAKA	Seihilabetekaria
42. Txoriherri Mank.	TXORIBERRI	



Herri aldizkarien indarra

Sektorearen egoera aztertu zen Arrasaten astebukaeran

Azken hamarkadan herri aldizkariak nabarmen gora egin dute Euskal Herrian. Sektorearen gaur eguneko egoera aztertzeko helburuarekin, ARKOk (Arrasate Komunikabideak) antolatutako herri komunikabideei buruzko III. jardunaldiak izan ziren joan zen asteburuan. "Hobekuntza eta kalitatearen ordua" zeritzan aurtengo leloak eta 120 bat lagun bildu ziren Arrasaten herri komunikabideen gaineko hausnarketa egiteko.

Azken hamarkadan herri aldizkariak nabarmen gora egin dute Euskal Herrian. Sektorearen gaur eguneko egoera aztertzeko helburuarekin, ARKOk (Arrasate Komunikabideak) antolatutako herri komunikabideei buruzko III. jardunaldiak izan ziren joan zen astebukaeran. "Hobekuntza eta kalitatearen ordua" zioen aurtengo jardunaldien leloak eta 120 bat

lagun bildu ziren Arrasaten herri komunikabideen gaineko hausnarketa egiteko. Euskal prentsa idatziak sekula izan ez duen zabalkundea lortu du herri eta eskualde aldizkariak esker. Euskal Herrian 50 argitalpen berri jaio dira azken hamar urteotan (abenduarien 14an 8 urte beteko dira BERRIGARA kaleratu zentetik). Aipatutako aldizkariak, guztira,

120.000 aleko tirada daukate eta 450.000 irakurlerengana heltzen dira. Tokian tokiko herri irratia eta telebista ere gero eta gehiago zabaldu dira Euskal Herrian. Orain, gaur eguneko indarrean dauden kalitatearen kulturaren bidetik, aipatutako komunikabideak hobetzeko beharra ikusten da. Antonio Cancelo MCCko presidentek jardunaldiei ha-

siera eman zien "Erabateko kalitatea" izenburuko hitzaldiarekin. Cancelok MCCn kalitatea ezartzeko jarraitu ziren irizpideak azaldu zituen eta emaitzei eusteko modu bakarra bezero, langile eta ingurunea pozik uztea dela adierazi zuen. Helburuak zehaztea eta dirulaguntzen menpe ez egotea beharrezkotzat jo zuten herri aldizkariaren kasuan, "Europako herrialdeen joera dirulaguntzak murriztekoa delako".

Ricard Rafecas Kataluniako Eskualde Prentsaren Elkarteko presidentek irakurleen leialtasuna irabazteko bideak aztertu zituen. Katalunian herri prentsak tradizio handiagoa dauka. 1976ko apirilean Avui katalanez idatzitako lehen egunkaria kaleratu ondoren herri prentsak sekulako hazkundera izan zuen bertan. Gaur egun Kataluniako Eskualde Prentsaren Elkartearen bi egunkari, 30 aste-kari, bi hamabostekari, 55 hilabetekari eta beste 53 aldizkari biltzen dira, 142 argitalpen guztira. Hizkuntza normalizazioaren gaia gaindituta, Katalunian argitalpen gehienak salgai jartzen dira. Irakurleen leialtasuna irabazteko kalitatezko informazioa eskaintzea ezinbes-

Berrigararen tirada eta orrialde kopurua

	Tirada	Orrialde kopurua
1990: 1 zkia.	1.500	16
1991: 46 zkia.	2.500	24
1992: 88 zkia.	3.000	24
1993: 130 zkia.	3.500	28
1995: 215 zkia.	4.000	28
1997: 303 zkia.	4.800	28
1998: 306 zkia.	5.100	32 + Kontuola, 4


tektzat jo zuen Rafecasek, "publizitate gehien jasotzeko publikitatea errentagarri egiten duen kalitatezko produktua plazaratuz. Informazioa interesga-

patrimonia".

Bestalde, Cristina Lopez Mañero Nafarroako Unibertsitateko irakasleak medioen hurbiltasunak eragindako presioa izan zuen aztergai, informazioan lan egiteak dakarren erantzukizun soziala azpimarratuz. Lopez Mañeroren usteetan, "portaera etikoak ez da merkea, bere ordaina dauka. Baina bere saria ere badu: independentzia, konfiantza eta sinesgarritasunaren handitzea. Etikoa izatea ez da erraza

Euskara elkarte eta herri aldizkariaren Topagunean Euskal Herri osoko 30 aldizkari biltzen dira. Kataluniako eskualde prentsaren elkartearen 142 argitalpen dira

ria gertatu behar zaio irakurleari. Eskualdeko prentsa bere eremuko gaiei buruzko informazio hoberena eskaintzen ahalegindu behar da. Hori da bere



IBON SARASOLA
Euskaltzaina

A dineko euskaldun petoekin, batez ere sartaldeko hizkeretan daudekeen arrotzasan arazoak ez dira, nik uste, 'barri' edo 'gatxa' gisakoien bidez konpontzen. Betiko euskararen baliabideak eta moldeak erabiltzetik etorriko da, nire ustez, arazoaren konponbidea. Eta betiko molde horiei ez die estandarrak, erabiltzen jakinez gero, kalterik egiten. Beraz, estandarra erabili behar da herri aldizkarietan nire ustez. Horrek ez du esan nahi orrialde pare bat edo, ezin eman daitezkeen tokio

euskalkian (ez tokiko hizkeran), estandarrekua grafia soilik duela. Oso gai arinak, izkimiriak edo, izan behar lituzkete orrialde horiek.

Berebiziko lana egin dezakete herri aldizkariak betiko euskara erabiltzen duten hiztun onen jardunaren gainean. Euskara batuan emango nuke horien hizkera, ahalik eta gutxien aldatuz, hau da, kontuan izanik hau dela estandarra gaur egun: Euskaltzaindiaren ortografia, deklinabidea eta aditza, eta azken urtetako 86 arauak, besterik ez.



LUIS FERNANDEZ
Kazetaria

Herri aldizkarietan malgutasuna botatzen dut faltan. Atal oso finkoak dituzte herri aldizkari gehienek: kirolari bi orrialde eskaintzen zaizkio, kulturari beste orrialde bat eta asteko erreportaiari beste hainbat. Erraztasunagatik horrela egiten dira gauzak aldizkariaren edukiak finkatzerakoan. Herrian gertatzen denaren arabera edukiak aldatu egin daitezke eta interesen arabera antolaketa bat egin daitekeela uste dut. Horrek malgutasuna emango lioke aldizkariari, aste bakoitzean benetan ga-

rrantzitsuak diren gaiei beharrezko espazioa emanez eta jokorik ematen ez duten atalaz baztertuz, horrela suertatzen denean.


Bestalde, aldizkariaren inplikazioarena gai zaila da, hainbat presio daudelako: anuntziantzaren, udaletzeko zinegotzientzaren, lagunenak. Hala ere, pil-pilean dagoenari eta konfliktibitate denari ezin dio ezetz esan aldizkari batek. Saiatu beharko da irudi orekatu bat ematen, baina gainetik pasatzea edo ez pasatzea ez da konponbidea.

Berrigararen sarrerak

Autofinantzioa
%54,46



Berrigararen publizitate sarrerak



are eta gutxiago herri aldizkari batean. Beharbada, herri aldizkariaren erronka horri aurre egitea izango da”.

Gaur egun euskara elkarte eta herri aldizkariaren Topagune elkartearen biltzen diren aldizkariak (30 aldizkari guztira) Plan Estrategikoaren ondorioak ezagutzeko aukera izan zuten Ainhoa Elices eta Luis Antonio Plazaren eskutik. Era berean, herri aldizkariaren edukiak, diseinua edota hizkuntzari buruzko kritika saiok antolatu ziren. Komunikabideen arteko lehiari aurre egin ahal izateko argi geratu zen herri komunikabideok ere geure produktuak hobetzeari ekin behar diogula. B



Arrasaten izandako herri komunikabideei buruzko jardunaldietan 120 lagun inguru bildu ziren. Goiko argazkian, Luis Fernandezek eta Iñaki Iturainek aldizkariaren edukiari buruz egindako kritika saioko irudi bat.



AINHOA ELICES

Topaguneko herri aldizkariaren teknikaria



GOIO ARANA

Diseinatzailea

Herri aldizkariaren sektorearen antolaketa hobetu beharra ikusten dut, kalitatearen eta lehiakortasunaren aldetik. Nahiz eta hasiera batean aldizkariak euren helburuak finkatuta eduki, misio hori zein den finkatzea eta eratzeari ezinbestekoa da, aldizkari bakoitzarena eta Topagunearena ere bai. Plan Estrategikoa etorkizunari begira sektorearen normalizaziorako baliagarriak izan daitezkeen ekimen eta lan ildoak ezartzeko diseinatu da. Herriko aldizkariak izan arren, gauza jakin batzuetan elkarlana

bultzatu daiteke. Heziketaz gain, hainbat baliabide modu egokiago batean jestionatu ditzakegu, erosketak, publizitatea edota administrazio kontuak esate baterako. Egoera desberdinetan gaude, baina hainbat gauza egin daitezke.

Lehiakorrak izateko hobekuntza eta kalitatearen ildotik jarraitu behar dugu. Politika zuzen batek argitalpenen garapen sendoagoa ekarri dezake. Hemendik aurrera nondik jo argi izan behar dugu.

Gainontzeko aldizkariarekin konparatuz, herri aldizkariok oso bitarteko urriekin lan egiten dugu. Diseinu kontutan asko hobetu da herri prentsan, baina diseinuak ez du lortu oraindik behar duen tokia herri aldizkarietan. Bertan ikasiz eta haziz joan gara eta medio handietara behin hazita zarenean zoaz bertara lanean. Arazorik handienetako bat horixe litzateke: formazioerako eta hezkuntzarako oso diru gutxi dagoela eta inportantzia txikia ematen zaiola. Egunerokotasunik ez da lortzen formazioerako

diru gutxi eta arreta eskasa dagoelako.

Nik uste dut garbi dagoela eduki onik ez duen aldizkari bat aldizkari ona ezin dela izan. Eduki onak izatea ezinbestekoa da, baina erabateko kalitatea lortzeko, informazioa irakurgarria gertatu behar zaio irakurleari. Informazio ona eta interesgarria izateko bi baldintza bete behar dira: informazio ona eta modu onean eskeinia izatea. Eduki onak izanda, itxura ona izan behar du aldizkari batek.



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Zapatuan barruan

- 10:00: Amilotx-Bayer
- 11:00: Komando Piperrak-FAC
- 16:30: Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam
- 17:30: Jauja OH Zerezos-Ortzi

- K. Piperrak
- Amilotx
- OH Zerezos
- Bildurbarek

Domekan barruan

- 09:30: Artusamak-Txipiron
- 10:30: Bayer-Igandekoak
- 11:30: Etengabe-Irubide Jatetxea
- 12:30: Mo(ko)lotov-Agirrebeña Jatetxea
- 16:00: Amozkibar-Tom Cat Argandolas
- 17:00: Bar Canalejas-A Ze Flaxa Etxagi
- 18:00: Errotagain-Bildurbarek Opel/Lam
- 19:00: Azpeitxi Jatetxea-OH Zerezos
- 20:00: Shaktale-Mongatxurak

- Bayer
- Etengabe
- Mo(ko)lotov
- Irubide
- Canalejas
- Errotagain
- Azpeitxi
- Shaktale
- OH Zerezos

Martitzena barruan

- 09:30: Matxakategi-Amilotx
- 10:30: Guadalest-Buya
- 11:30: Patatus-HHH
- 12:30: Ufala-Uve Bikoitza
- 16:00: La Juve-Usoa
- 17:00: Urrutxurtu-SLP
- 18:00: Arbe Kirolak-Pinturas Bergara
- 19:00: Xurruapak-Jakina Patxaran Team
- 20:00: Bildurbarek-Azpeitxi Jatetxea


- Buya
- Patatus
- Ufala
- HHH
- Urrutxurtu
- Arbe
- Xurruapak
- Bildurbarek
- Pagomendi

argi!

Bi puntuko zigorra

Asteburuan jokatu zen jardunaldian, Bildurbarek Opel/Lam taldea berandu iritsi zen arbitratzera eta, ondorioz, Antolaketa Batzordeak bi puntu kendu dizkio. Mongatxurak-en kontrako partidua galdu egin zuenez, bost punturekin zortzigarren postuan gelditu da.

jokoz kanpo



XABIER GARITANO
Artusamak

G. Nola zabiltzate?

E. Ondo. A multzoko bigarren postuan gaude. Joan zen urtean antzera samar aritu ginen. Nik neuk lesio bat izan nuen eta luzaroan jokatu gabe izan naiz. Denboraldiko lehendabiziko partidua joan zen asteburuan izan zen Usoaren kontra. Zorionez, irabazi egin genuen.

G. Zer dela eta Artusamak izena?

E. Kuadrilaren izena da.

G. Partiduetara etortzeko garaian jende falta nabari duzue?

E. Ez. Seriotasunez gabiltza.

Dakidanez, Antolaketa Batzordeak zigorra ipintzen diepartidua jokatzera ez datorrenari. Hori gehiegizkoa iruditzen zait.

G. Arau berrien inguruan zer iritzi daukazu?

E. Urtero aldatzen dira eta gauza asko izan behar dituzu kontuan.

Sinpleagoak eta errezagoak ipini beharko lituzkete.

G. Futbolzalea zara?

E. Ez dut futbola gehiegi jarraitzen, baina Athleticekoa naiz. Telebistan futbol gehiegi ematen dutela uste dut.

G. Txapelketako jokalarri bat?

E. Txiki Colinas.

gora eta behera



Ezinleike taldea lider berria

Jakina Patxaran Team taldeari irabazi ondoren, Ezinleike C multzoko lehen postuan jarri da, Xurruapak bigarren postura bidaliz. Bestalde, Guadalest taldeak, duela bi aste lehendabiziko postua lortu ondoren, bigarren dagoen Tom Cat taldeari irabazi zion eta, horrela, sei puntuko aldea hartu dio.



Uve Bikoitza 3 puntu gutxiago

Antolaketa Batzordeak, Uve Bikoitza taldeari 3 puntu kentzea erabaki du partidua jokatzera ez agertzeagatik. SLP taldeak ez du azkenaldian partidurik irabazi eta oraindik -3 puntu dauka.

emaitzak

Moskis-HHH	5:1
FAC-Urrutxurtu	5:1
Jakina Patxaran Team-Ezinleike	0:1
A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi	2:1
Irubide Jatetxea-La Juve	2:1
Tom Cat Argandolas-Guadalest	0:4
Uve Bikoitza-Agiñaspi	0:3
Buya-Ufala	1:4
Igandekoak-Ari Ari	3:1
Patatus-Arbe Kirolak	1-10
Jauja OH Zerezos-Errotagain	0:3
Pagomendi-Bar Canalejas	3:1
Bildurbarek Opel/Lam-Mongatxurra	3:1
Txipiron-Ion Autoak	7:1
SLP-Etengabe	1:3
Agirrebeña Jatetxea-Matxakategi	2:1
Sirimiri Eri-Mo(ko)lotov	4:1
Usoa-Artusamak	1:1

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Pagomendi	19	8
2. A Ze Flaxa Etxagi	17	8
3. Errotagain	17	8
4. Azpeitxi Jatetxea	10	7
5. Bar Canalejas	10	8
6. Jauja OH Zerezos	9	7
7. Ortzi	8	8
8. Bildurbarek Opel/Lam	5	6
9. Mongatxurak	5	7
10. Shaktale	3	7

A multzoa

	P	J
1. FAC	24	9
2. Artusamak	22	8
3. Txipiron	18	8
4. Komando Piperrak	13	8
5. Urrutxurtu	12	8
6. Usoa	12	8
7. Etengabe	10	8
8. La Juve	8	7
9. Irubide Jatetxea	6	8
10. Ion Autoak	5	9
11. SLP	-3	8

B multzoa

	P	J
1. Guadalest	25	9
2. Tom Cat Argandolas	19	9
3. Arbe Kirolak	19	9
4. Moskis	18	9
5. Uve Bikoitza	15	9
6. Ufala	15	9
7. HHH	13	9
8. Agiñaspi	10	9
9. Buya	7	9
10. Pinturas Bergara	5	8
11. Amozkibar	3	8
12. Patatus	1	9

C multzoa

	P	J
1. Ezinleike	22	
2. Xurruapak	21	
3. Sirimiri Eri	19	
4. Bayer	16	
5. Jakina Patxaran Team	16	
6. Agirrebeña Jatetxea	14	
7. Ari Ari	11	
8. Matxakategi	7	
9. Mo(ko)lotov	6	
10. Amilotx	6	
11. Igandekoak	2	



Derbya Bergarak irabazi zuen

Joan zen asteburuan, BKEko futboleko Preferente mailako taldeak Arrasateri Atxabalpe zelaian jokaturako partiduan 0-1 irabazi zion. Euriaren ondorioz, zelaia egoera kaskarrean izan zuten jokalariek. Hala ere, Nietoren aginduetara dauden mutilek, indar eta jokaldi arriskutsu gehiago azaldu zuten.

Gola, Arrasateko atezainak egindako kale baten ondorioz lortu zuen Errastik. Dena dela, atezain arrasatearrak bergararren bi kontraerasotan gol-aukera garbi-garbiak zapuztea lortu zuen. Orokorrean, arrasatearrek ez zuten partidu osoan zehar gol-aukera garbirik egiterik izan, nahiz eta bigarren zatian indartsuago aritu ziren.



Azken partiduan maila ona

Senior mailako Iraundi eskubaloi-taldeak 26-21 irabazi zion Hondarribiko taldeari. Lehen zatian bi taldeek antzeko maila erakutsi zuten eta 11-10eko emaitzarekin heldu ziren atsedenaldira.

Bigarreanean, berriz, hamargarren minututik aurrera, Lijoren mutilek partidua kontrolatu eta alde nabaria lortu zuten. Zortzi goleko aldea lortzera ere iritsi ziren, 23-15eko emaitzarekin. Bergarako taldeak maila ona erakutsi zuen eta Garikoitz Arregi izan zen gol gehien egiten zuena.

Hamabi talde dira Liga-ko txapelketan jokatzeko ari direnak. Bergarakoak, azken garaipen honen ondorioz, zazpigarren postuan daude sailkapenean.



Azkenaurre- koaren kon- tra porrota

Saskibaloi saileko Bolsos Bergara taldeak, 86-75 galdu zuen Lizarrako Ega Pan taldearen kontra. Alex Familiarren mutilek maila eskasa erakutsi zuten, batez ere sailkapeneko lehen postuan zeudela kontuan izanda. Lehen zatian, Lizarrakoek 14 puntuko aldea aterazieten bergararrei, izan ere ezin izan zioten inoiz nafarrek erakutsitako erritmo azkarrari aurre egin.

Bigarren zatian, Ega Panoakoak 22 puntutako aldea lortzera ere heldu ziren eta bergararrek poliki-poliki partidua orekatzea lortu arren, ezin izan zuten norgehiagoka irabazi. Asteburuan partidu erabakiorra dute, Caja Rurali irabaziz gero, igoera faserako sailkatuta egongo dira eta.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Arrasate

Lehen mailako kadeteak

Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara- Zestoa

Preferente mailakoak

Zapatua. 15:30. Agorrosin

Bergara-Eibartarrak

Bigarren mailako jubenilak

Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Union Txiki

Infantil mailakoak

Domeka. 11:45. Ipintza

PILOTA

DEBA GARAIKO

BETERANOEN

TXAPELKETA

- Aldai eta Agirre

Larrañaga eta Garitano

- Igartua eta Calvo

Muguruza anaiak

Domeka. 11:00. Pilotalekua

SASKIBALOIA

Bergara-Arrasate

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 12:15. Kiroldedia

Bergara-Eskoriatza

Jubenil mailako neskak

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bolsos Bergara-Caja Rural

Senior mailakoak

Domeka. 19:00. Kiroldedia

IÑAKI MUJIKA / Futbolaria

"Lehen gola sartzea kosta egiten zaigu"

17 urte ditu eta BKEko futboleko jubenil mailako jokalaria da. Bigarren urtez, jubenilek maila bikaina erakutsi dute Ligan zehar. Hori dela eta, gero eta jarraitzaile gehiago hurbiltzen ari dira jubenilen partiduetara eta horren "errudunetariko" bat, Iñaki Mujika da.

G. Denboraldi paregabea bigarren urtez.

E. Gol ugari egin ditugu. Aurten entrenatzaile berria daukagu eta sekulako giroa dago gure artean. Entrenatzaile ona da eta, horretaz gain, harreman oso ona dago gure artean. Entrenamenduetara oso gustora joaten gara. Joan zen denboral-

dian zorte txarra izan genuen, finala galdu egin baike. Oraingoan hiru talde ari gara lehendabiziko postuetan: Pasaieta, Eibar eta gu geu. Asteburuan Pasaiaren kontra jokatuko dugu. Partidu hasieran lehen gola egitea kosta egiten zaigu, baina gola eginez gero, partidua aurrera ateratzen dugu normalean, ea oraingoan ere horrela gertatzen den!

G. Jubenil maila amaitu ondoren, aukerarik badago?

E. BKE jarraitzeko aukera bakarra talde nagusira igotzea da eta hori ez dago gure esku. Jokalari onak daude eta denboraldi bikaina egiten ari direnez, zaila izango da bertan izatea, baina ez dut itxaropenik galdu. Beste irtenbidea, areto futbole-

an jardutea edo beste talde batera joatea izango litzateke.

G. Bergararik kanpo jokatzeko deitu dizute inoiz?

E. Joan zen urtean Gipuzkoako selekzioan izateko probak egin nituen Zubietan. Gainontzeko jokalariek nagusiagoak ziren eta ez nuen zorterik izan.





Argazkiko gimnastak Zaragozan izango dira bost egunez.

Ariznoa taldeko gimnastak Espainiako Txapelketara

Euskadiko Txapelketan emaitza onik lortzeko aukera barik gelditu baziren ere, Helena Herrerosen aginduetara entrenatzen diren neskek abenduaren 4tik 8ra

bitartean Zaragozan jokatuko den Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan izango dira. Honako hauek dira bertara gerturatuko diren gimnastak: Jaione Igar-


tua, Aintzane Narbaez, Ane Miren Fernandez, Eneritz Olabarria eta Leire Lasa. Bergarako bost gimnastak junior mailan arituko dira txapelketan. B

Mikel Arakistain txapeldunorde

Gipuzkoako Karate txapelketa joan zen asteburuan jokatu zen Hernanin. Mikel Arakistain bergararrak bigarren saria eskuratu zuen eta, ondorioz, hilaren 19an Laudion jokatu den Euskadiko Txapelketan izango dugu.

Pilotalekuetako erreserbak

Kirol Zerbitzuak jakinarazi nahi du, datorren urterako, Zabalotegi, Osintxu eta Elorregiko pilotalekuetako ordutegien erreserbak, azararen 30etik abenduaren 22ra bitartean egin beharko direla Udal Kirol Zerbitzuan, 07:30etatik 13:30etara edo 943 77 91 67 telefonoan. Bestalde, Udal pilotalekua esku pilotarako alokatu ahal izango da. Ordua 1.000 pezetan alokatuko da.



Palako finala atzeratu egin da

Joan zen zapatura ko iragarrita zegoen palak txapelketako finala abenduaren 12rara atzeratu da. Finala, Andonegi eta Ricok, Albedi eta Agirrebeñaren kontra jokatuko dute eta hirugarren eta laugarren postuetarako, Etxaniz eta Iruretak Urigoitia eta Manceboren kontra. Finala, eguerdiko 12:30etan izango da.

Euskadiko Mendiko Auto Igoera, Aitor Zabaletarentzat

Jaizkibeleko II. Igoera irabazi ondoren, Aitor Zabaletak Euskadiko txapela lortu zuen asteburuan. Espainiako txapelketa irabazi ondoren Euskadikoan ere berri nagusitu da. Eguraldiak lagundu ez arren, bergararrak 2.41.41-eko denbora egin zuen.

Begararrak eta berri Lola BMW-Wurth barketak, denbora onenak egin zituzten bi txandetan ofizialetan. Aitorren ondoren, Carlos Egozkua sailkatu zen eta hirugarren postua Ruben Garciaarentzat izan zen.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

Tramoxix taberna

Bolu 30, behea. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

KA F E T E G I A

BAIXO

PINTXOAK eta asteburuetan eta jaiegunetan **RABAK!**
Eta orain, zatoz **REAL**aren eta **ATHLETIC**aren partiduak ikustera

Loramendi kirolak

Hotzari aurre egiteko...

- Forro polarrak
- Goretex-ak
- Txamarrak
- Botak...

eta ski ekipoak
21.900 pta.tik
hasita.






Etorri katalogo berria jasotzera

INTERSPORT

nice boys, lehen mailako strip-teasea

5 MUTIL
KOREOGRAFIA
TOMASLARSON
STRIP-TEASE
O S O A



jam
aretoa

jostunen eguna
LARUNBATA 12 • gaueko **12** etan

SARRERA 1.000 PTA

www.salajam.com

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San Lorentzon. 943 76 21 63.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Aranerreka. 910 091 861.

Apartamentua S. Lorentzon. 943 76 41 34.

Erosi

Pisua erosiko genuke Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Bi neskak pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Deba Garaian baserria erosi edo errentan hartuko genuke. 943 71 47 56 (Antonio, gaeuz).

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebulean). 943 76 50 46.

Emakume bat etxeko etxe plantatzeko eskaintzen da. 943 76 26 73.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska bat edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain tituluak gaitzak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 88.

Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Boni Lascurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Garajea salgai Kruz Ga-

llastegin. 943 76 27 61.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Ibargarai. 943 15 15 81.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

Errentan emateko

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 21 12.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokal komertziala herri er-

dian. 100-300 m² bitartekoa. 943 79 11 71.

Erosi

40 m²ko biltegi edo baxua behar dugu. 945 14 17 84 (17:30-20:00).

Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/76 37 80 (gaeuz).

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

Euskarazko komunikabide batek

KOMERTZIALAK

behar ditu, publizitate salmentan aritzeko
Deba Garaian

Eskainiko da:
Lan kontratua
Soldata finkoa + komisioa

Baloratuko da:
Eskarmentua antzeko lanetan
Eskualdean bizitzea

**Interesatuok bidali kurikulumak
helbide honetara:**
Erref. Komertziala. 1887 posta-kutxatila. Donostia
**Kurrikuluma jasotzeko azken eguna:
abenduaren 12a.**

edadetu bat zaintzeko.
943 76 47 76.

Emakume bat behar da
umeak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko.
943 76 70 33 (gauzez).

Neska euskalduna be-
har da goizez haurrak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 943 76 01 17.

Umea zaindu eta etxeko
lanetarako pertsona bat
behar da Antzuolan.
943 76 65 00.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Filolojia ingelesean li-
zentziatuak ingeles kla-
seak ematen ditu.
943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisi-
ka eta kimika klaseak.
943 76 70 40.

Majisteriztan diploma-
tuak klaseak ematen di-
tu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak
kantu klaseak ematen
ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak.
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak
OHOk klaseak ematen
ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai-
lara arte. 943 76 32 93.

Lizentziatu batek italie-
ra klaseak eman edo
itzulpenak egingo lituz-
ke. Deitu 943 76 65 24
telefonora.

Eskaerak

Italiera klaseak jaso
nahi nituzke.
943 76 64 14 (Eva).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia Climber 91
motorra salgai.
Deitu 943 76 07 28
telefonora (Ion).

Rover 216 (NA-W).
943 72 63 47 (Angel).

Alfa 33 1.7 i (SS-AK). Ai-
re egok. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-
W) salgai. 943 76 05 13.

Volkswagen Caravelle
furgoneta (VI-M) salgai.
943 79 97 35.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea
salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S)
salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Erosi

Cocker txakurkume go-
rria erosiko nuke (pedi-
grearekin). 943 76 12 86
(Mari Carmen).

8. DENETARIK

Saldu

Holton tronpeta salgai,
(75.000 pta). 943 76 48 23.

Deshumifikadorea sal-
gai. 943 76 00 85.

Pentium-multimedia
ordenagailua eta
Deskjet inpresora
salgai. 907 34 46 58.

Elurretako kateak
Citroen AXerako.
943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska
luzeak (40 zenbakia)
salgai. 943 76 26 84.

Super Nintendoko jo-
kuak eta mandoak
salgai. 943 76 10 93.

Jaioberriarentzako ka-
pota kotxea. 30.000
PTA. 943 76 15 40.

Snowboard taula eta
fijazioak salgai. 1,52 m.
neurrikoak. 45.000
pezeta. 943 76 15 35.

Kerosenoeko estufa sal-
gai. 943 76 02 92.

Edesa termo elektrikoa
(30 l.). la berria, 10.000
PTA. 943 76 07 50
(Maite).

Super Nintendoa (5 jo-
ko) salgai. 943 76 49 38.

Bueltako tresilloa (tapi-
zatura). la berria.
943 76 12 86.

Super Nintendo kontso-
la jokoak eta mandoak.
943 76 10 44.

Super Nintendoa (5 jo-
ko) salgai. 943 76 00 85.


Erosi

Laminadun eta hanka-
dun somierra (1,35
m.koa) erosiko nuke.
943 76 04 57.

Musika disko singleak
erosten ditut.
943 52 65 77.

Galdu

GAC bizikleta, more eta
zuri kolorekoa, desagar-
tu da Seminarioko pa-
tioan. 943 76 29 21.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**MANTENUMENDU-
RAKO TEKNIKARIA**
Ibai ezkeraldea.
13474/7

**INJINERU TEKNIKO
MEKANIKOA**
Bilbo. 14566/3

GORTINA-EGILEA
Arabako Lautada.
13694/5

PROGRAMATZAILEA
Ibai eskuinaldea.
14571/8

IGELTSEROA
Arabako Lautada.
13815/5

PINTOREA
Bilbo. 14652/4

**FRESATZAILEA
CNC EZAGUTZAILEA**
Durangaldea. 14331/3

IGELTSEROA
Bilbo. 14654/3

**EHUN-
HEDATZAILEA**
Bilbo. 14490/1

**GAS
INSTALATZAILEA**
Bilbo. 14671/1

**EROSKETETAKO
ZUZENDARIA**
bilbo. 14523/4

SOLDATZAILEA
Durangaldea. 14687/5

**EROSKETETAKO
PROGRAMATZAILEA**
Deba Garaia. 14552/5

JAVA IRAKASLEA
Bilbo. 14688/5

**LAN-BITARTEKARI-
TZAKO TEKNIKARIA**
Bilbo. 14711/5

**Lan eskaintza hauetakoren bat
interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta
egukizetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonia: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**INGELES
IKASTARO INTENTSIBOAK**

**FRANTSESA
ALEMANA**

Urtarrilaren 18tik martxoaren 26ra.

- BI HILABETE ETA ERDIKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU ETA ERDI.
- GOIZEZ NAHIZ ARRATSALDEZ.

**ETA BESTE HAINBAT
IKASTARO ERE BAI**



INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. S. Martin plaza z/g (3. pisua)

☎ 76 06 87

Matrikula-epea abenduaren 9tik 22ra!

Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30.

Bergara eta Antzuolako liburu, disko eta aldizkariak Durangoko azokan izango dira

Bergarako Udalak postua jarriko du; BERRIGARA Topagunearen stand-ean

Bergara eta Antzuolako liburu eta diskoek izango dute tokia Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko 33. Azokan. Bergarako Udalak, Eibar-koarekin batera salmenta postua jarriko du. Bestalde, Txalaparta argitaletxeak Juan Martin Elexpurren azken liburua, "Krabelina beltza" nobela erotikoa, jarriko du salgai. BERRIGARA astekaria ere ikusgai izango da gainontzeko herri aldizkarietan batera, Topagunearen stand-ean.

Bergarako eta Eibarko udalek argitaratutako liburu eta diskoak, azokarako propio jarritako postu batean erosi ahal izango dira asteburuan Durangon. Bertan, Bergarako euskararen azterketari buruzko liburua, Ikerlan sailekoak, Justo Garate beka jaso dutenak eta beste hainbat argitalpen izango dira. Horretaz gain, "Bergarako ereserkia eta elkarteen martxak" izenburupean Bergarako Udal Musika Bandak kaleratutako diskoa ere han izango da. Bestalde, Antzuolako Udalak kaleratu berri duen "Antzuolako hizkera" liburua, Jone Larrañagak Antzuolako berberi buruz egindako lana jasotzen duena ere salgai egongo da stand-ean. Jardunek arestian kaleratu duen "Maitasunez..., amodiozko gutunak 1993-1998 eta piropoak" ere salgai izango da.

Jardunek antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketako sei edizioetan saritutako lanak biltzen dituen liburua, Euskal Herriko euskara elkarte eta herri aldizkariak biltzen dituen Topaguneak jarritako postuan ere izango da salgai.

Argitalpen berriak

Bergara eta Antzuolako udalek eta Jardunek liburu bana argitaratu dute aurten eta horietatik izango dira nobedade nagusiak. Alde batetik, "Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" bildumako bigarren liburua, joan zen irailean kaleratu zen "Txondorrek. Ka-

robiak. Elurzuloak", Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiolak idatzitakoa. Bestetik, lehen aipatu ditugun Jone Larrañagarena eta amodiozko gutunei buruzkoa. Lehenengoa, 1.500 pezetan jarriko da salgai; Jone Larrañagarena, 2.000 pezetan eta Jardunena, 1.000 pezetan.

"LitEROTura" saila

Txalaparta argitaletxeak gai erotikoei buruzko sail berria sortu du eta sail horretako lehen bi liburua Durangoko



Durangon salgai izango diren nobedadeetako batzuk.

KONDE

 PANADEROKUA
 Burdinate 1
 ☎ 943 76 02 57

ETXEBERRIA
 ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
 Bidekurutzeta 16 BERGARA
 Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

YAZKI
 UME GAZTE
 Neska eta mutil
 Irizar 3. 943 76 16 14
 Ibargari 8. 943 76 54 73

azokarako argitaratu dira. Juan Martin Elexpuru da sailaren koordinatzailea. "Literotura" izenburupean argitaratu diren bi liburuak honako hauek dira: batetik, Juan Martin Elexpuren azkena, "Krabelina beltza" eta, bestetik, "Euskal idazleen ipuin erotikoak".

Jose Mari Etxanizen ipuina

Azken honetan, 18 euskal idazleren ipuin bana jasotzen da, tartean Jose Mari Etxaniz preso bergararrarena, "Emakume-itsasargia" izenekoa. Argiratzen den Etxanizen lehen lana da. Bere ipuinarekin batera, Euskal Herriko hainbat idazlerenak ere irakur daitezke liburuan. Besteak beste, Itxaro Borda, Gerardo Markuleta, Jasone Osoro, Harkaitz Cano, Xabier Mendiguren, Marian Porcel, Joxean Agirreeta Lucia Etxebarriak idatzi dute liburu honetarako. Azken honen ipuina da itzuli den bakarra. Liburuaren prezioa 1.700 pezetakoa da.

Juan Martin Elexpuren azkena

Esan bezala, Juan Martin Elexpuren lehen nobela erotikoa ere salgai izango da Txalaparta argitaletxearen stand-ean. Protagonista liburusaltzaile bat da. Emakume argi eta liberal batekin maitemindu eta erotismoaren zirrikitu guztiak arakatuko dituzte elkarrekin: binaka, hironaka, launaka... Liburuaren kontrazalean irakur daitezkeen, "Krabelina beltza" oso tenperatura beroko nobela erotikoa da. Horregatik, egunean kapitulu bakarra irakurtzea gomendatzen da, nahiz eta jakin irakurleak ez duela kasurik egingo. Hau ere 1.700 pezetan jarriko da salgai.

BERRIGARA ere Durangon

BERRIGARA astekaria ere izango da Durangoko azokan. Herri aldizkariak erakusteko, Topaguneak jarriko duen postuan aurkituko duzue. Bergarar eta antzularrek BERRIGARA ondo ezagutzen baduzue ere, Euskal Herrian argitaratzen diren era honetako beste aldizkariak ikusi eta, nahi izanez gero, etxera eraman ahal izango dituzue. Kanpokoek, bestalde, BERRIGARA gertutik ikusteko aukera izango dute. Stand honetan euskara elkarte eta herri aldizkariak argitaratzen dituzten beste produktu batzuk ere izango dira. B



Jardunen asmoa 14 eta 17 urte artean dauden neska-mutilekin lan egitea da.

"Bergara ezagutzen" lehiaketa

Jardunen eskutik, 14-17 urte bitarteko gazteentzat

"Bergara ezagutzen" lehiaketa abian jarriko du urte hasieran Jardunek. Helburua, 14-17 urte bitarteko herriko neska-mutilekin batera hainbat alor jorratzea da.

Lehiaketan Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako eta Ipintza eta Miguel Altuna institutuetako 14 eta 17 urte bitarteko neska mutilek hartuko dute parte. Nekane Gabilondo Jarduneko dinamizatzailearen hitzetan, hiru dira lehiaketa honen helburuak: "alde batetik, gazteek Bergarako euskara gehiago lantzeko aukera izatea. Bestetik, herriko ezaugarri orokorrak eta datu interesgarriak berenganatzea, informazio iturriak non dauden ikasiz eta, azkenik, herriko hainbat jardueratan parte hartzeko motibazioa gehitzea". Beraz, ikasteaz gain, jolastea da asmoa.

Lehiaketa taldeka antolatuko da eta bakoitza 15 lagunek osatuko dute: 2 aurrelari, 2 atzelari, jokoak egiteko 3 lagun eta gelako 8 laguntzailek. Aste bakoitzean bi taldek neurtuko dituzte indarrak elkarren kontra.

Galderak, proba grafikoak eta jokoak

Hiru motatako probak izango dira: galderak, proba grafikoak eta jokoak, eta lehia bakoitzean hirurak landuko dira. Galderetan, honako arlo hauek jo-

rratuko dira: Bergarako euskara, geografia eta natura, ekonomia eta kultura, historia eta artea eta kirolak. Talde bakoitzari 15 galdera egingo zaizkio, atal bakoitzetik 3 galdera. Proba grafikoetan, berriz, jartzen zaien argazkia identifikatu, bertso edo esaera zaharra asmatu eta plano edo mapako lekua identifikatu beharko dute lehiakideek. Azkenik, jokoarendako talde bakoitzak 20 minutu izango ditu eta aurkezleak emandako datuen arabera zerbait topatu beharko dute herrian zehar. Probetan, aurkezlea, honen laguntzailea eta epai-mahaia izango dira.

Lehiaketa aurrera atera ahal izateko hainbat kolaboratzailearen laguntza izan dute Jardunekok. "Arlo bakoitzean adituak diren herriko pertsona ugari lagundu digute galderak prestatzen. Horretaz gain, herriko hainbat talderen laguntza ere izan dugu" dio Nekanek.

"Bergara ezagutzen lehiaketa", esan bezala, urte hasieran jarriko dute abian eta parte hartzen duen talde kopuruaren arabera luzatuko da. Aste bakoitzean taldeek lortzen dituzten puntuen arabera eratuko da sailkapena. Finalerdietara eta finalera heltzen diren taldeentzat sariak izango dira. Irabazleek astebukaera bat igaroko dute aterpetxe batean natur kirolak eginez. Probak Kartzela Zaharrean egingo dira.

Izen-ematea Kartzela Zaharrean egin behar da eta epea abenduaren 16ra arte izango da zabalik. B

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Olerki bat banatzen duten lerro multzoak. 2. Salaketa egin. Erne! 3. Gizaseme gazte. Toka, dut. 4. Sailak. Egokia. 5. Errepikatuz, gorotza. Basoko landarea. Fosforoa. 6. Ikuzi aditzaren infinitiboa. Hizki grekoa. Egile tzikia. 7. Zu zeuk. Nitrogenoa. 8. Utik! Jardun. Sortu zintuena. 9. Toka, naiz. Zein modutan. 10. Akitu aditzaren infinitiboa. Ibarra.

Goitik behera

1. Asmakaria. 2. Hautatzearen ondorioak. 3. Ipar., halere. H₂O. Interjekzioa. 4. Barrea eragiten digutenak. 5. Mapen bilduma. Kontsonante bikoitza. Hidrogenoa. 6. Lutezioa. Txerri txoen oihua. 7. Kontsonantea. 500. Bibliako pertsonaia. Zakur. 8. Trebea. Arrantzagunea. 9. Bibliako pertsonaia. Kontsonantea. Irlandako irla. 10. Kitatzearen ondorioa. Bokala.

Soluzioa

10. Kitapena. A. 9 Adan. L. Man. 7. D. D. Noe. Or. 8. Iaioa. Kala. 5. Altas. Rr. H. 6. Lu. Kurrina. 2. Alta. Ur. U. 4. Pailazoak. 1. Asmakizuna. 2. Hautaketak. Goitik behera. 2. Nauk. Nola. 10. Aki. Harana. 7. Zorrorek. N. 8. Uri. Ari. Ama. 5. Ka. Asuna. P. 6. Ikuz. Ro. Le. 2. Mutil. Diat. 4. Atalak. Ona. 1. Ahapaldiak. 2. Salatu. Adli. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein kaletan dago Labegaraietako kiroldegia eta zein urtetan eraiki zuten?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Sirimiri** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Erika Arteagarentzat** izan da: Arte kale pizzeria-jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Erikari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Errekalde jauregia** Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izena-deitura:

Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

SIRIMIRI
JATEXEA

Barrenkalea 3. BERGARA
Tf. 943 76 59 19

Marulan herrikoa, 37 urteko australiar hau mundu osoan zehar ingelesa erakusten ibilitakoa da. Duela zazpi urtetik Euskal Herrian bizi da; azpeitiar batekin ez-konduta dago, Azkoitian bizi da eta Bergarako Espolon akademian lan egiten du.

Mark Barber

Australiarren eta euskaldunon artean bada antzekotasunik?

Ez, nahiko desberdinak gara, australiarrak hotzagoak beharbada.

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Nire emaztea bertakoa delako.

Londonen ezagutu nuen.

Euskal Herria ezagutzen zenuen?

Hona etorri arte ez. Baina Australian,

Ingham-en, euskaldun asko dago.

Zer da gehien harritu zaituena?

Kultura mantentzeko egiten den lana.

Non ikasi duzu euskara?

Euskaltegian eta kalean, jendearekin.

Zaila gertatu zaizu?

Gertatzen da kaleko jende askok ez duela pazientzia askorik; gaztelerara jotzen dute.

Ikasteko zailena, zer?

Aditzak.

Euskarazko hitz bat?

Pinpilinpauxa.

Zela ikusten duzu Euskal Herriko egoera?

Hobera doala.

Txikitan zer izan nahi zenuen?

Suhiltzailea.

Zer behar da irakasle ona izateko?

Intelijentzia eta jendearekin ondo komunikatzea.

Ikasle zailenak zein adinetakoak?

Gaztetxoak.

Australiako ala hemengo sukaldaritza?

Hemengo.

Janari bat?

Txipiroiak.

Edari bat?

Sagardoa eta ardo beltza.

Kalimotxoa gustatzen zaizu?

Ez.

Jueguzalea zara?

Bai.

Hobby bat?

Musika. "Hamabi tribu" reggae taldean ari naiz; abestu eta kitarra jotzen dut.

Zelako musika atsegin duzu?

Reggae, rock, ska...

Telebistako programa bat?

"Goenkale" eta "Bertatik bertara".

Australiarra izanda, rugbya gustoko izango duzu...

Bai, Eibarren izan nintzen Euskadi-Erusia partidua ikusten.

Australia faltan botatzen duzu?

Batzuetan.

Australiako leku bat?

Rylstone.

Korreo elektronikoa erabiltzen duzu?

Bai.

Zer egingo duzu Gabonetan?

Beharbada, Australiara joan. Hiru urte dira ez naizela egon eta Gabonetan azkenengoz orain dela 11 urte.



UDAZKEN
KULTURALA

98



BERGARAKO UDALA



GIPIZKOAKO FORU
ALDUNDIA



A B E N D U A

EGITARAUA

98/XII/4 **Musika** Eskolako kontzertua
19:00 *Novedades aretoan*

98/XII/5 **Fregoli** antzerki taldearen
kalejira, akelarrera bidean
12:30 *Herriko kaleetan*

Fregoli antzerki taldearen
Kromlech antzezlan
22:30 *Novedades aretoan*

98/XII/18 **Ruper** Ordorika &
Mugalaris
22:30 *JAM aretoan*

98/XII/19 **Gabonetako** kontzertua:
Udal Musika Banda,
Aritzeta Abesbatza,
Bergarako Orketa Sinfonikoa
eta Bergarako Orfeoia
22:30 *Udal pilotalekuan*

98/XII/30 **Bizar Zuri**
19:30 *Herriko kaleetan*

GABONETAKO JOLAS PARKEA

98/XII/28, 29, 30
15:30-18:30. Labegarietako Kiroldegian

ERAKUSKETAK

98/XII/4-13
Bergarako kirol munduko
pertsonaien argazkiak.
Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta.
Kultur Etxean (Errotalde jauregia)

98/XII/18-27
Pintura. Bergarako pintoreen koadroak.
Kultur Etxean (Errotalde jauregia)

98/XII/30-99/1/10
Eskultura. Bergarako eskultoreak.
Kultur Etxean (Errotalde jauregia)

ZINEA

Ostegunero, 20:00etan zine-klubeko pelikulak

Dantzari bikotea, 1952

Dagoeneko 46 urte igaro argazki hau atera zenezik. Orduan ere dantza txapelketek bere tokia izaten zuten jaietako egitarauan eta baziren herriz herri dantza txapelketetan aritzen ziren bikoteak. Txuni Sasietak eta Moises Aspiazuk osatutakoa horietako bat genuen.

Garai hartako bikoterik onenetakoa eizen eta inguruko herri danetan erakutsi zuten beren maila. Lau bat urtez aritu ziren elkarrekin dantzan eta Euskadiko txapel-dunak izatera ere iritsi ziren. Horretaz gain, beste txapelketa mordo bat eskuratu zuten.

Goiko argazkia Bergarako Pazkuetan ateratakoa da eta orduan Txunik 15 urte zituen eta Moisesek, berriz, 11. San Martin plazan bildutako jendetzaren aurrean, dotore jantzita, argazkian ikus daitekeen estilo bikainarekin aritu ziren, euren atzean somatu daitekeen soinujolearen laguntzarekin.

Argazkia: Txuni Sasieta



OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

**Olentzero bezala, Gabonetako oparietarako,
zatoz Orto-Lagunera!**

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34



umelaga

JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

EZ DAGO KONPARAZIORIK





OMU
KERAMIKAK

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otorra 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
Betiko muntaketak



Mitarte 3 • ARETXABAĒTA • Tf. / Faxe: 943 77 04 55

altzariak

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA
ETA APAINKETA**



**ZAPATU
ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**

Araba etorbidea 20 • ARETXABAĒTA • Tf. / Faxe: 943 79 23 51

Grupo Arkauzen denak dira abantailak.
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.
Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.